

2025-06-27 BARIKUA / 1.028. ZENBAKIA / 23. URTEA
DURANGALDEKO ASTEKARIA ANBOTO.ORG TOKIKOM

Helmuga suziria jaurtitzearen arduradun

Helmuga emakume taldeko kideek jaurtitako txupinazoarekin abiatuko dituzte Zaldibarko jaiak. Uztailaren 3an, 18:30ean, jarriko dute donien atxa, eta 18:45ean jaurtiko dute txapligua / 16



Jeyxi Spaguetti:
"Durangaldea Goierri baino gogorragoa da drag batentzat" / 2-3



MIGUEL OSVALDO

Durangoko Joxe Miel Barandiaran
egoitzak 20 urte bete ditu herritarrak zaintzen / 4



ZALDIBARKO JAIK / 13



"EZ DAKIT BERRIRO HORRELAKORIK BIZIKO DUDAN"

Oier Luengo zornotzarra Lehen Mailara igo da Oviedorekin.

Historia egin du gorriak ikustetik datorren klubarekin.

Ospakizunetan bizitako uneak betirako gordeko dituela dio.

Datorren urtean estreinaldia du Lehen Mailan. / 20

Oier Luengok hirugarren denboraldia osatu du Oviedo taldearekin.

"Gau giroko Pirritx eta Porrotx garela esan daiteke"

JUAN CARLOS RODRÍGUEZ (JEYXI SPAGUETTI) TRANSFORMISTA

Bilboko gau giroan sona eta ibilbide luzeko taldea da 'Las Fellini'. Partaideetako bat durangarra da: Juan Carlos Rodríguez da bera, baina Jeyxi Spaguetti du alter ego

Ekaitz Herrera EKAINAREN 28A

Gutxi izango dira Bilboko giro-rik gautxorienean *Las Fellini* transformismo taldea ezagutzen ez dutenak, eta are gutxiago izango dira taldekideetako bat durangarra dela dakitenak. Juan Carlos Rodríguez Legido (Durango, 1980) 1998an taularatu zen lehenengoz gainerako "Felliniek". Urteen poderioz, bizi propioa eman dio Jeyxi Spaguetti pertsonaiari, eta zenbatu ezinak dira taldekideekin batera han-hemenka eskaini dituen ikuskizunak. Eroso dabil dantza, kabaret eta umore artean, ikuskizunetara hurreratutako ikusleak zirikatzen eta LGTB eskubideak lau haizetara aldarrikatzen. ANBOTO haren jaioterrian batu da Rodríguezekin.

Eta, hara non, Fellinietako bat durangarra dugun.

Halantxik da. Beharbada, garai bateko jendeak jakingo du, baina gaur egungo askok ez dakite durangarra naizela. Noan lekura noala, beti diot durangarra naizela. Ikuskizunetako ikusleak zirikatzeke ere erabili izan dut nire jaioterria. Baten bati "durangarra naiz, ni bezain *akabata* zaude" esateko.

Zelan ailegatu zinen Las Fellini taldeko partaide izatera?

Lagun baten urtebetetzearekin hasi zen guztia. Lagun talde bat Durangotik Bilbora joan ginen ospakizuna egitera, eta garai bateko komentuan sartu ginen;

hau da, sasoi hartan hiriko gau giroaren zati zen LGTB gune batean. Bertan, pertsonaia bat sortu eta ikuskizun txiki bat eskaini nuen. Ikusleen artean zeuden Las Fellinikoak, eta emanaldia amaitutakoan, nigana hurreratu ziren, ikuskizuna gustatu zitzaieela esatera eta haiekin jardun nahiko ote nuen galdeztara. Nik ez nuen taldea ezagutzen. Apurka-apurka taldea ezagutzen hasi nintzen, eta hara non, 1998an, nire 18. urtebetetzean, eurekin taularatu nintzen lehenengoz.

Beraz, ia 30 urteko ibilbidea duzu taldean.

Lehenbiziko emanaldiak Bailongo izeneko lokalean eskaini genituen, El balcón de la Lolan gero, eta Badulake tabernan, azkenik. Badulakera iritsi ginean, nik taldea uztea eta Benidormera bizitzera joatea erabaki nuen. Alabaina, handik denbora batera, gauza ugari egiteko gogoz itzuli nintzen hona. Eta, orduan, Las Fellinik berriro ere eman zidan taldean sartzeko aukera. Harrezkero, 22 urte egin ditugu Badulaken saioak eskaintzen.

"ESZENA POLITA SORTZEN DABIL DRAG MUNDUAN: ARTISTA BERRI ASKO ETA ESTILO UGARI DAGO"

Nola definituko zenuke Las Felliniren eskaintza?

Gure ikuskizunak izendatzeko *drag* terminoa erabiltzen da, baina guk gurago izaten dugu *transtornismoa* egiten dugula esatea. Izan ere, transformismoa bera trastornatzeko gaitasuna dugu. Ez dugu drag dotore hori egiten, ez ditugu arropatarako jostintza lan landuak egiten. Bular modura puxikak darabil-tzagu, eta gure arropak merke-merke erosten ditugu. Oso pailazoak gara. Bilboko gau giroko Pirritx, Porrotx eta Mari-motots garela esan daiteke!

Juan Carlos Rodríguezekin eta Jeyxi Spaguettiren artean alde handia dago?

Erabat desberdinak gara. Juan Carlos oso-oso lotsatia da; Jeyxi, aldiz, urdanga eta lizun hutsa, zikina, higuingarria. Urteen poderioz, pertsonaia barneratzen eta garatzen joan naiz, eta eroso sentitzen naiz berarekin. Sentsuala eta sexya da Jeyxi, lizuna, baina badu bere alde sentimentala ere. Gizonezkoren batek ezezkia ematen badio, sugorri baten pare jartzen da.

Alter ego hori lantzea erreminta baliagarria da norbere barrena esploratzeko?

Asko ikasten da. Zaren horri buruzko kontzientzia hartzen duzu, eta denak ez duela balio ikasten duzu. Egoera bakoitzera moldatzen eta horren arabera jarrera hartzen ikasten duzu.



Jeyxi Spaguetti Bilboko Campos Elíseos antzokiko emanaldi batean. EDUARDO ZAMANILLO



Juan Carlos Rodríguez da pertsonaiaren atzeko pertsona.

Nola ikusten duzu Euskal Herriko drag esena?

Iruditzen zait oso esena polita sortzen dabilela. Drag berri ugari dago, egundoko gaitasuna duena, eta betikoak ere hor daude, egundoko mailarekin. Estilo asko dago, eta ederra da hori, lehen bakarrenetakoak ginen-eta. Onuragarria da denontzat, transformistak eta dragak lo egon ez gaitezen.

Zeintzuk dira zuen erreferenteak?

La Prohibida, adibidez, asko maite dugu, baita Kika Lorace ere. Oso lagunak ditugu. Horrez gainera, aipatzekoak dira Su-

premie Deluxe eta Nacha La Macha. Asko ikasi dugu lau horiekin.

Durangaldea zer nolako ekosistema da drag batentzat?

Oso gogorra! Durangaldea Goierri baino gogorragoa da drag batentzat! (barrez) 2000ko hamarkadan hainbat bider etorri ginen eskualdera, ikuskizunak egitera. Emanaldietako batzuk Andra Mariko elizpean egin genituen, eta gogoan dut garai bateko Lurpe diskotekan ere aritu ginela. Atxondoko taberna batean ere sarri eskaini ditugu emanaldiak. Durangal-



dera duela sei bat urte etorri ginen azkenengoz, eta gauzak aldatzen hasita zeudela igarri genuen.

Sei urte daramatzazue eskualdera etorri barik. Itzuli beharko zarete, bada...

Bai, mesedez! Dei gaitzala Durangoko alkateak! Gustura eskainiko dugu emanaldia Andra Mariko elizpean! (barrez) Tira, egia esan, eskualdeko edozein herritara etortzeko prest gaude.

Drag munduan hasi gura duenak posible du eskualdean hastea, ala hiriguneren batera joan behar du ezinbestean?

Iruditzen zait hirigunera joan beharko lukeela. Apurka-apurka begiak zabaltzen gabiltza, DragRace telebista saioak, adibidez, asko lagundu du gure mundua ikusarazten. Baina, Durangaldeko herritarren batek lan honetan barneratu gurako balu, Bilbora joan beharko luke. Publikoa hemen gogorra da, eta hemen zerotik hastea, gaitza.

Bihar LGTB Harrotasunaren Nazioarteko Eguna aldarrikatuko da. Nola ikusten duzu komunitatea?

Momentu honetan ez gaude duela urte batzuk bezain libre. Atzera egin dugula uste dut. 1998-1999-2000 urte haietan kalera irteten genuen protestara, oihu egitera. Aldarrikatzaileagoak ginen. Orain, ematen du dena dela festa hutsa; manifestazioak albo batera uzten gabiltzala dirudi. Festa erraldoiekin ikusgarritasuna irabazi dugu, baina betiko manifestazioak, Ekainaren 28koak, babesten jarraituko nuke. Hori da gure eguna. Gure artean gerran ibili barik, batu gaitezen eta aldarrikatzen jarrai dezagun.

Las Fellini: Bilboko gau giroko ikur



Las Felliniko kideak promozio argazkian. LAS FELLINI

Laukotea. Taldekideen artean aldaketak egon diren arren, gaur egun, Barbara Kaldo, Nagore Gore, Caprichossi Potxaperta eta Jeyxi Spaguetti dira Las Felliniko lau kideak.



Bilboko Aste Nagusian, Rubiana trabestiarekin. LAS FELLINI

'Pinpi'. Zalantzarik barik, Pinpilinpaua da Bilboko Aste Nagusiko konpartsen artean, LGTB herritar gehien batzen duena. Las Fellinik urtero eskaini ohi du emanaldia, purpurina artean.



Jose Antonio Nielfa 'La Otxoa' Felliniekin. LAS FELLINI

Aitzindaritza. Bilboko gau giroko ikur diren arren, ezin ahaztu ikurren artean ikurra: La Otxoa. Jose Antonio Nielfak garaiko molde guztiak irauli zituen 1981eko Aste Nagusian, 'Libérate' abestean.



Badulake tabernako giroa, emanaldia amaituta. LAS FELLINI

Tenplua. Las Fellinik bere tenplu propioa du Bilboko San Frantzisko auzoan: Badulake taberna. Barikuro-barikuro egiten dituzte emanaldiak, 00:00etatik aurrera.



Gure herrietan harro, gure herrietaz harro.

Abadiño

Amorebieta-Elizama

Arando

Bilbo

durango

Elizate

Garaike Udala

Iurreta

Izurtza

Mañaria

Mañaria

Otxandio

Zaldibar

Barandiaran egoitza: 20 urte herritarrek zaintzen

Durangoko Joxe Miel Barandiaran zentroak 20 urte bete ditu. Bi hamarkada hauetan adineko ia 900 herritarri eskaini dizkiote zaintza, laguntasuna eta arreta. Joan zen astean ospatu zuten urteurrena. "Egoitza bat barik, etxe bat gara", diote arduradunek

Ekaitz Herrera DURANGO

"Egoitza bat barik, etxe bat gara", dio Nagore Mardarasek, Barandiaran egoitzako zuzendari eta gizarte hezitzaileak. Eta, ez zaio arrazoirik falta, zentroak 20 urteko bide oparoa egin du-eta, adinekoei beharrezko zaintza, arreta eta konpainia eskaintzen, "etxean bezala sentiarazten", beste era batera esanda. "Hemen, komunitatean bizi gara, bakoitzak bere ohiturak eta hartu-emanak mantenduta. Izan ere, egoitzaren kokapenak hori ahalbidetzen du: erabiltzaileek beren hartu-emanak eusten diete, betiko dendetara, betiko tabernetara, kartetan jokatzera, joaten jarraitzen dute", azaldu du Mardarasek: "Uste dut hori dela gure etxearen aberastasuna". Ondo merezitako ibilbidea ospatzeko, komunitateko kideek urteurren ekitaldia egin zuten joan zen astean. Meza batekin hasi zuten jardunaldia, Iurretako abesbatzaren parte-hartzearekin, eta ekitaldian izan



Urteurren ekitaldiko une bat.

zen, halaber, Mireia Elkoroiribe Durangoko alkatea ere: "Pozarren gaude egoitzak eta eguneko zentroak 20 urte bete dituztelako. Durangorentzat inportantea da, batez ere, guztiz partekatzen dugulako hemengo eredua: zaintza

eta gertutasuna. Pertsona bakoitzari ematen zaion tratatu pertsonalizatu hori", txalotu zuen alkateak.

Ekitaldi nagusia, berriz, egoitzako patioan egin zuten. Hitz hartzean parte hartu zuen Nagore Mardaras zuzendariak berak, eta Rafak, ama erresidentzian daukan herritar batek. "Izurrian, ama hona ekartzea erabaki genuen anai-arrebek. Hasiera batean, deseroso nengoen, erabaki hori hartzea etsitzearen pareko zerbait zela pentsatuta. Alabaina, oker nengoen. Ikusi dut ama hona ekartzea ez dela hari uko egitea izan. Izan ere, hemengo ez da zaintza bakarrik, hemen laguntasun handia eskaintzen duzue. Eskerrik asko", esan zuen.

20. urteurrena betikotzeko, mural bat egin dute egoitzako patioan. Irantzu Lekue artista gasteiztarak egin du, erabiltzaileen laguntzarekin: *Zuek izan zinetelako gu gara* esaldian oinarritu dute irudia.



Galtzaretako etxea Mankomunitateko gizarte-zerbitzuen egoitza da gaur egun.

Galtzaretako etxea gazteei eskaintzeko prest dago udala

"Gazteentzako eraikina izatea gura dugu, gazte guztiei zabaldurikoa, baina ez gaztetxe bat", dio alkateak

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udala prest dago Galtzaretako etxea herriko gazteentzat bideratzeko. Halantxik jakinarazi du Mireia Elkoroiribe alkateak. Eraikina "herriko gazte guztiei zuzendurikoa" izatea gura dute, baina horiek "elkarte baten bueltan antolatuta" eta "proiektu bat oinarri" izan behar duela aurreratu du alkateak. Halaber, argi adierazi du "gazteentzako eraikina" izatea gura dutela, "ez gaztetxea". Era berean, okupazioaren bidea baztertu du alkateak: "Ez dugu ulertzen, ez partekatzen. Udala berba egiteko

prest dago, baina ez edonola", zehaztu du. Galtzaretako jauregia izen bereko kalean dago, Kurutzia ikastolaren eta Nevers ikastetxearen artean. Udala da eraikinaren jabea, baina Mankomunitateak bertan eskaintzen ditu gizarte zerbitzuak, lehenengoaren baimena du-eta horretarako. Elkoroiriberen esanetan, udala Galtzaretako eraikina gazteei eskaintzeko moduan egongo da, Mankomunitateak Elkartegia erosteko prozesua amaitutakoan; hau da, gizarte zerbitzuak bertara lekualdatutakoan.

Astehenean hasiko dira Astarloako igogailua berritzen

Azpiegiturak prestazio hobeak izango ditu, udalaren esanetan. Egoitza atariko korridorea ere berrituko dute

Ekaitz Herrera DURANGO

Datorren astehenean, ekainak 30, Durangoko Astarloa adinekoen zentroko igogailua berritzen hasiko dira. Azpiegiturak hainbat irisgarritasun arazo izan ditu orain arte, eta hainbat bider egon da matxuratuta. Hori dela eta, igogailuaren zuloa handitu eta instalazio berria ipiniko dute, zerbitzuaren azkartasuna eta garraiatu beharreko pertsona kopurua handitze aldera. Gainera, etorkizuneko igogailuak, larrialdiren bat dagoen kasuan, anbulan-

tziatako ohatila sartzeko aukera ere eskainiko du. Azkenik, azpiegitura egungo legedira moldatuko dute. Adinekoen zentroa aterpetzen duen eraikina hainbat jaberena da, eta horrenbestez, bertan esku hartzen duten jabe guztiek izango dute igogailu berria finantzatzeko betebeharra. Udalarik dagoenez, eraikinaren % 8 da berea, eta beraz, aurrekontuko kopuru hori finantzatzeko du diruz: 53.010 euro. Lanek hila-bete bi inguru iraungo dute. Udalak lanak udan egingo ditu.

Marmitakoak, bertsolariak eta goitiberak Tabirako jaietan

Elizaren aurrealdeko zelaia jaizalez beteko da asteburu honetan. Txupinazoa gaur jaurtiko dute, 19:30ean



Auzoko jaiak, Tabiran. TABIRAKO JAI BATZORDEA

Ekaitz Herrera DURANGO

Muruetatorreko auzotarrek Tabirako biztanleei pasa diete herriko auzoetako jaietako testigua. Asteburu honetan, sanpedroak ospatuko dituzte Tabirako elizaren bueltan. Auzo elkarteak kideek makina bat ekitaldi antolatu dituzte horretarako. Jaiak, gaur, barikua, hasiko dituzte 19:30eko txupinagaz eta osteko tortilla-janagaz eta DJ gauagaz. Zapatuan izango dituzte ekintzarik parte-hartzaileak: marmitako txapelketa, fanfarrea, gazteen jolasak, taloak, Nonbait taldearen erromeria eta Kuku eta Kene musika jartzaileak egongo dira. Domekan, goitiberak, magoak eta bertsolariak izango dituzte. Egitarauko xehetasun guztiak anboto.org atarian topa daitezke.

Legegintzaldi erdiaren balantze kontrajarria egin dute Durangon

Gobernu taldearen esanetan, ekintzen % 88 "martxan edo amaituta" daude. EH Bilduk "geldialdia" nabarmendu du

Ekaitz Herrera DURANGO

Legealdiko lehenengo bi urteak igarota, Durangoko udal gobernu taldeko kideek eta oposizioko alderdi nagusiak orain artekoaren balantzea egin dute. Mireia Elkoroiribe alkatearen berbetan, urte hauetan bietan "aurrerapen nabarmenak" egin dituzte "etxebizitzan, durangarrentzako kalitatezko zerbitzuetan, azpiegiturretan eta jasagarritasunean". Ekintza planaren % 88 "martxan edo amaituta" dagoela esan du. Horien artean kokatu ditu trenbide zaharraren trazadura bide

berde bihurtzeko proiektua, merkatu plaza berritzeko lanak, adinekoen egoitzako igogailuaren zaharberritzea, Tabirako kirolgune berriaren proiektua, Plateruena berriz zabaltzea, PERIaren garapena eta Pinondo Etxea eraberritzeko proiektua. Etorkizuneko erronka etxebizitza dela esan du alkateak.

"Norabiderik barik"

EH Bilduren arabera, "legegintzaldiko proiektu garrantzitsuenak hasi gabe daude", eta gobernu taldeari egotzi diote "geldialdian" eta "norabide barik" egotea: "EAJ eta PSE-EE Alderdi Popularrarekin aliatu ziren, eta durangarren ongizatea helburu izango zuen gobernu baten ordeztu, alderdien interes partikularretan oinarritutako gobernua jarri zuten martxan", kritikatu dute. Gainera, gobernuaren proiektuak "aurreko legegintzaldian abiatutakoak" direla esan dute: "Trenbide zaharraren trazadura berreskuratzea, Antso Estegiz kalea birgaitzea, indarkeria matxistaren kontrako unitatea sortzea, auzo-bilerak egitea eta aurrekontu parte-hartzaileak", adibidez. Era berean, hainbat proiektu "aurrerapen egin ezinda" geratu direla esan dute, hala nola Correoseko kultur etxea. Euskarari dagokionez, "atzerapauso nabarmenak" egin direla diote.

Planteamendu berri bat, "osasun sistema neoliberalaren aurrean"



Osasungintza publikoaren aldeko kontzentrazioa Durangon.

Ekaitz Herrera DURANGALDEA

Osasun sistema publikoaren aldeko plataformek "eredu berri bat" proposatu dute. "% 100 publikoa izango den osasungintza" eta "pribatizatutako zerbitzu guztiak lehengoratzeko" eskatuko dute, baita "lankidetzako publiko-pribatuko politikak" baztertzeko eta osasunera bideratutako dirua "Europako batezbestekoa-rekin parekatzea" ere.

Proposamenok Legebiltzarri eta eragile sozialei helaraziko dizkiete.

Milioi bat eurotik gora Gizarte Larrialdietarako Laguntzetara

Mankomunitateak partida berria onartu du larrialdi egoeran daudenentzat. 466 eskaera kudeatzen dabilta

Ekaitz Herrera DURANGALDEA

Mankomunitateak Gizarte Larrialdietarako Laguntzak kudeatzeko irizpideak erabaki ditu. Aurten, 1.021.403 euro bideratuko dituzte zeregin horretara. Azaldu dutenez, hasiera batean, poltsa 932.214 eurokoa izatea zuten aurreikusita, baina 2024ko likidazioa eta gero, kopuru horri beste 89.188 euro gehitzea lortu dute. Honela banatuko dituzte atalak: 200.000 euro etxebizitzaren alokairura, etxebizitza erosteko kredituetara 100.000, etxebizitza man-



Gizarte zerbitzuen egoitza.

466 eskaera

Momentu honetan, Mankomunitatea herriarren 466 eskaera kudeatzen dabil; horietako 150 ebazpen fasean daude jada. Idioia Otaduy lehendakariak gogoratu duenez, laguntzok "funtsezko tresna" dira gizarte zerbitzuen barruan, "ustekabeko egoerak eragindako egoera pertsonal eta familiarrei erantzuteko aukera ematen baitute". Gaineratu duenez, "Mankomunitatearen helburua da Durangaldeko herriarren gizarteratzea eta ongizatea sustatzen jarraitzea".



Terrazadun tabernetan gauean sortzen den zarategatik kexak jaso ditu udalak.

Iurretako Dantzari kalean gauez sortutako zarategatik kexu

Udalak bizilagunekin batzartu gura du egoera bideratzeko, bertokoen hainbat kexa jaso ondoren

A. Basauri IURRETA

Iurretako Dantzari kalean "gauean sortutako zarategatik" hainbat kexa jaso ondoren, bizilagunekin elkartzeko da udala egoerari konponbide "egokia" emateko. Oskar Koka alkatearen berbetan, "egoera zein den jakitun gara, eta modu egokian kudeatzeko bizilagunekin batzartu gura dugu". Dantzarin dauden terrazadun tabernetan gauean dagoen zarategatik, bertako zenbait bizilagunek hainbat kexa sartu dituzte udalean iaztik. Egoera "jasanezina" dela diote, eta udalari neurriak hartzeko eskatu diote.

Terrazetarako "arrazoizko" ordutegiak zehaztea, musika "kontrolatzea" eta araudia betetzen ez duenari isuna jartzea

exijitu diote udalari bizilagunek. Tabernek euren jardunerako zehaztuta dituzten arauak (taberna zein terrazen ordutegiak, baimendutako dezibelioak...) betearaztea gura dute. "Gai-nontzeko herriarrek legez, atsedean hartzeko eskubidea" aldarrikatzen dute bizilagunek.

Konponbiderako batzarra

Oskar Koka alkateak gogoratu du, Iurretan 21:00ak arte dagoela Udaltzaingoa lanean. Hala ere, nabarmendu du kexa jaso duten guztietan jakinarazi zaiela tabernetako arduradunei araudia bete behar dutela. Egoerari legalki konponbidea emateko batzartu gura du udalak bizilagunekin. "Egoera aztertu eta zein bide jarraitu adosteko", argitu du alkateak.

EAJk gizarte-langileen eskariak "seriotasunez aztertze" eskatu dio gobernuari

E.H. DURANGALDEA

Mankomunitateko EAJk jakitera eman duenez, azkenengo osoko bilkuran Gizarte Ekintzako langileek hartu zuten berba, ordezkari politikoei eskari bat egiteko. Jeltzaleen esanetan, gizarte langileek plantilla handitzeko eskaria egin zioten Mankomunitateari, "herriarren eskari gero eta handiagoi berme osoz erantzun ahal izateko". Momentu honetan, hamar profesionalak eskaintzen dute gizarte-zerbitzuetako arreta, baina langileen iritziz, "gutxienez" bi behargin gehiago beharko lirakeke arlo horretan, zerbitzua behar bezala eskaini ahal izateko. Hori dela eta, EAJk auzia "seriotasunez aztertze" eskatu dio EH Bilduri, eta "kezka" agertu du koalizio subiranistak erakundeko gizarte-langileei erantzun ez diela iritzita.

Halaber, EAJk azaldu du aurreko legealdian indartu egin zutela Gizarte Ekintza arloa, bertara "gizarte-langile berri bat eta, lehen aldiz, arloko koordinatzaile bat" sartu zirelako. Horrek herriarrei eskaintutako arretaren kalitatea "hobetu" zuela nabarmendu dute jeltzaleek.

Paula Martinen irudiak iragarriko ditu jaiak

Paula Martinek jaiak iragartzeko egin duen kartelak "gorputz ez normatiboa" duten hainbat herritar jaso ditu, "inor atzean utzi gabe", Karmen jaien izaera inklusiboa azpimarratzeko; uztailaren 15etik 27ra bitartean ospatuko dituzte Karmengo jaiak

Aritz Maldonado ZORNOTZA

Zornotzan hasiak dira motorrak berotzen Karmengo jaietarako. Aurtengo jaietako irudia Paula Martin zornotzarrak egin du, eta hain zuzen ere, jaien izaera inklusiboa azpimarratu gura izan du kartel iragarlearekin. "Gorputz ez normatiboak dituzten pertsonak eta pertsonaiak agertzen dira irudian. Elkarrekin jai giroaz gozatzen agertzen dira, jaiak ere denontzat izan behar dutelako". Eskaera "pozez eta ilusio handiz" jaso zuela nabarmendu du, gainera. Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak ere jaien irudi baikorra zabaltzen duela aipatu du. "Pertsona guztiak Karmengo jaien parte sentitzea nahi dugu".

Uztailaren 15etik 27ra ospatuko dituzte Zornotzako Karmen jaiak.

Kaskoak, inklusiboago egiteko

Jaiak inklusiboago egiteko, neurri praktikoa ere hartu du Zornotzako Udalak. Horrela, zarata murritzeko 100 kasko



Udal ordezkariak eta Paula Martin, agerraldian.

banatuko dituzte entzumen-hipersentikortasuna, autismoa edo zentzumen-sentsibilitatea duten pertsonen artean. "Ez dugu gura inor jaietako ekintza garrantzitsuetatik kanpo gertatzea, eta kasko hauek horretarako

baliabide bat dira", azaldu du Sonia Cabeza zinegotziak. "Ez da gura irtenbide puntual bat ematea, zentzumen aniztasunari buruzko kontzientzia sortu gura dugu", gehitu du Salterainek.



The Brass Funkeys. HAIZETARA

The Brass Funkeys taldea garaile, XVIII. Haizetaran

Zornotzako Udalak "benetan arrakastatsutzat" jo du Haizetara nazioarteko jaialdiaren XVIII. edizioa

A. M. ZORNOTZA

The Brass Funkeys talde britainiarra aukeratu du epaimahaiak Haizetara jaialdiaren XVIII. edizioeko bandarik onena; beraiek eraman dute 15.000 euroko sari nagusia. Zornotzako Udala pozik agertu da jaialdiaren azken edizioak izandako harrera eta garapenarekin. "Lehiaketa honek kaleko musikaren esparruan nazioarteko erreferente gisa duen posizioa sendotu du, artistei beren talentua erakusteko aukera emanez, eta komunitateari kalitate handiko musika ikuskizunez gozatzeko aukera emanez", azal-

du du udalak ohar baten bidez.

Ainara Ortega Haizetarako presidenteak, Jou Gonzalez musikariak eta Afrika Bibang abeslariak osatu dute epaimahaia aurtur; Quentin Longepe Suck Da Head taldeko tronboiari eman diote musikari onenaren 1.000 euroko saria. Ostera, publikoaren saria (4.000 euro) Goxo txarangak jaso zuen. Nobedade bezala, SD Amorebietaren mendeurrenagatik 'Aupa gazteak - bertsio onena' saria ere banatu zen; Undertow Brass Band taldeak eraman zituen garaikurra eta 1.000 euroko saria.

Berriztarrak prest, Donien Atxa igo eta jaiiei hasiera emateko

Gaur hasi eta uztailaren 2ra bitartean, San Pedro eta Santa Isabel jaiak ospatuko dituzte Berrizen



lazko irudia.

A. M. BERRIZ

Donien Atxa igota, gaur ekingo diote berriztarrek San Pedro eta Santa Isabel jaiak ospatzeari; aurretik, Udal Kontseiluko kideek pregoia irakurriko dute; ostean, dantzari dantza eta ohiko sardina-jana egingo dituzte, eta lehengo eguna borobiltzeko, Luhartz taldeak erromeria egingo du Elizondo plazan; txosnagunean, Old Time Spooks eta Gailu taldeek kontzertua eskainiko dute.

Musikazaleek hainbat hitzordu izango dute uztaila bitartean, Oihan Vega, Mi buenaventura eta Lukiek taldeen emanaldiak, besteak beste. Horrez gainera, herri-bazkaria, paella txapelketa edota mozzorro jaitsiera ere egingo dituzte Berrizen. Jaiiei amaiera emateko, jubilatuen bazkaria eta Piccolo Camerino ikuskizuna egingo dira uztailaren 2an.

Inkesta martxan Elorrión, Irisgarritasun Plana osatzeko

Irisgarritasun Unibertsaleko Plan Integrala garatzen ari da Elorrioko Udala, Danona Gobernu Planean jaso lege

A. M. ELORRIO

Elorrioko Udala Irisgarritasun Unibertsaleko Plan Integrala garatzen ari da, herritarrek ingurune, zerbitzu eta baliabide irisgarriak edukitzeko helburuarekin. Ekimena 'Danona' Gobernu Planean jasota dago. Horrez gainera, inkesta jarri du martxan, herritarren iritzia jasotzeko. Udalaren webgunean eskegi du inkesta, eta uztailaren 4ra bitartean bete ahal izango da. Plana, ostera, Geotech enpresari esleitu diote. Udalaren arabera, irisgarritasun soluzioetan eta administrazio

publikoaren kudeaketa geoespazialean espezializatutako enpresa da. "Udaletik, elorriar oro gonbidatu gura dugu galdetegia betetzera, norbere beharrak, esperientziak eta proposamenak parteka ditzan. Denon ekarpena oso baliotsua da udalerrir irisgarriagoa eraikitzeko", azaldu du udalak ohar baten bidez.

Inkesta anonimoa da, eta interesa duten guztiek bete dezakete, "berezik, aniztasun funtzionala edo mugikortasun urritasunak bizi dituztenei" zuzenduta bada- goko ere.



UDA GIRO 2025

Ekainaren 22tik
abuztuaren 30era

PICCOLO CAMERINO



29 EKAINA igandea · 18:00
TABIRA PARKEA Euria bada: Tabirako elizpea
Adrian Conde MAGIA / CLOWN

BERTSO SAIOA

MAIALEN LUJANBIO / ABARKAS /
TXABER ALTUBE / ARAITZ KATARAIN
Gai-jartzaile: Ander Elorriaga



29 EKAINA igandea · 19:00
TABIRA PARKEA Euria bada: Tabirako elizpea
BERTSO SAIOA

TRES CUENTOS (DES)CONCERTANTES



3 UZTAILA osteguna · 19:00
KURUTZESANTUKO LORATEGIA Euria bada: Kurutzesantuko museoa
Khantoria MUSIKA TESTUAK

GARI ETA MALDANBERA



5 UZTAILA larunbata · 20:00
PLATERUENAKO TERRAZA Euria bada: Plateruena kultur Aterpea
30 URTE MUSIKA

CLAUDETTE



11 UZTAILA ostirala · 20:00
PLATERUENAKO TERRAZA Euria bada: Landako gunea
La maleta Company & Cie Balancetol ZIRKUA ANTZERKIA

BIZI SINTETIKOAK



17 UZTAILA osteguna · 19:00
BENITA URIBARRENA PARKEA Euria bada: Durangoko arte eta historia museoa
Loire Vargass & Jaime Nieto POESIA ELEKTRONIKA

El peor espectáculo del mundo... de momento!



19 UZTAILA larunbata · 22:00
EZKURDI PARKEA Euria bada: Landako gunea
Zanguango Teatro ANTZERKIA

GRU 4



24 UZTAILA osteguna · 20:00
TABIRA AUZOA Euria bada: Andra Mariako Elizpea
UDAKO ZINEA

KATANA



25 UZTAILA ostirala · 22:00
BENITA URIBARRENA PARKEA Euria bada: San Agustín Kultur Gunea
Ana Gertia BAKARRIZKETA

BABOOM!



3 ABUZTUA igandea · 20:00
OTAMOTZENA PARKEA Euria bada: Landako gunea
Xabi Larrea ZIRKUA

DIÁBOLO CLASIC METAL



30 ABUZTUA larunbata · 19:00
PLATERUENAKO TERRAZA Euria bada: Landako Gunea
Marmenno Inolondubles MUSIKA DIABOLOAK

Musika eskaintza zabala, Apatako jaien barruan

Atzo Apatako jaiak hasi ziren, txopo txikia eta handia jasota. Aurretik ekimenez betetako asteburua dator. Zapatuan, Mozorro Egunean, Fane-ren kontzertuarekin eta Zirkinik Bez taldearen erromeriarekin gozatzeko aukera egongo da, besteak beste

Joseba Derteano ATXONDO

Axpeko jaiak amaitu dira, eta Apatak hartu du erreleboa. Atzo hasi zituzten sanpedroak, plazan txopo txikia eta handia jasota.

Aurretik ekimenez betetako asteburua dator. Musika izango da menuko plater nagusietako bat. Aurten, jaietako musika eskaintzaren barruan, erromeriek protagonismo berezia izango dute. Ez jaietako barikuan bakarrik, ohitura den moduan, baita zapatuan ere. Horrela, gaur Itzal taldeak erromeria eskainiko du plazan, eta ostean, Eguerra ta Kitto after taldeak giro-tuko du jaia. Zapatuan, berriz, Fane musikaria eta Zirkinik Bez taldearen erromeria izango dira protagonistak.

Gaztetxean ere badago musikarekin gozatzeko aukera: bari-kuan, Gozzue taldearekin eta DJ Yiyirekin, eta zapatuan, Take (Tributo A Kaos Etiliko) taldearekin. Baina, dena ez da musika. Esaterako, zapatuan Mozorro



Atxondarrak txopoa plazara dakartela.

Eguna ospatuko dute, aurtengo gaia 'azoka' dela.

Pilotako finalak

Aurtengo jaietan protagonismo berezia izango du pilotak. Bate-tik, Atxondoko pilota eskola bi-

ziberrituak irakurri zuen jaiet hasiera eman zien pregoia. Bette-tik, domekan arratsaldean Pelota Goxua txapelketako finalak jokatu dituzte; baita pilota eskolako finalak ere. Finalerdiak Axpen jokatu ziren.



Ganso&Cia konpainiaren antzezlaneko une bat. GANSO&CIA

Atxondon hiru kale antzerkirekin gozatzeko aukera irailera artean

Hiru konpainiak antzezlan bana eskainiko dute, hiru egunetan: ekainak 29, uztailak 17 eta irailak 5

J.D. ATXONDO

Atxondoko Kultura Mahaiak, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza bat baliatuz, kalera aterako du antzerkia datozen hileetan. Hiru kale-antzerki antolatatu ditu, bana ekainean, uztailan eta irailean. Apatan izango dira.

Lehenengoa, zapatu honetan da, 18:00etan. Apatako jaiet barruan Barsanti konpainiak *Legia gu gara* antzezlan eskainiko du. Sergio eta Erramun dira protagonistak, izakeran oso desberdinak diren istiluen kontrako brigadako bi kide.

Uztailaren 17ko bigarren hitzorduan, Maite Guevara konpainiaren *¡Qué buen día!* ikus-teko aukera egongo da. Antzezlan honetan Martina pertsonaia alaiak jolasez, istorioz eta inprobisazioz betetako piknik komunitario batera gonbidatuko ditu ikusleak.

Hirugarren kale-antzerkia irailaren 5ean da: Ganso&Cia konpainiaren *Welcome&Sorry*. Obra honetan, teatroa maite duten bi antzerki-maisu Hamlet fidelitasunez taularatzen saiatuko dira, kaos dibertigarri bati bidea emanez.

Natxo Conderen kartelak irabazi du aurten ere Izurtzako lehiaketa

lazko moduan, Abadiñon bizi den gernikarraren kartelak iragarriko ditu irailean ospatuko diren Izurtzako jaiak

J.D. IZURTZA

Izurtzako jaiet badute aurtengo kartela. Lehiaketara lau proposamen aurkeztu dira, eta Natxo Conderen diseinuak irabazi du. Abadiñon bizi den gernikarrak bigarren urtez jarraian irabazi du Izurtzako kartel lehiaketa. Kartelean jendea dantzatzen ageri da udaletxeko plazan, balkoitik txupina aireratzeko ari dela. Jaietako hainbat ekimeni egiten die erreferentzia kartelak: lehiaketa gastronomikoari, karta jokoei, igel eta partxis txapelketari...



Aurtengo kartel irabazlea.

Sanjoanen ostean, San Martin jaiak ospatuko dituzte Mañarian

Urkiolara bidean dagoen San Martin ermitaren bueltan batuko dira herritarrak uztailaren 6an. Goizeko mezaren ostean, dantzariak eta pintxoak egongo dira

J.D. MAÑARIA

Mañarian San Martin jaiak ospatuko dituzte uztailleko lehen domekan, izen bereko ermitaren inguruan. Meza egongo da lehenengo, eta ostean, dantzariak eta pintxoak egongo dira bertaratzen direnentzat.

Antzeko egitaraua izan zen martitzenean San Joan egunean, izen bereko ermitan: meza, dantzak eta pintxoak. Bi ermitak Urkiolara doan bidean daude.



San Joan ermitaren inguruan, herritarrak dantzarien saioa jarraitzen.

Durangaldeko Mankomunitateak hondakinen bilketan jauzi kualitatiboa egingo du:

kamioi berriak, sistema digitalak eta sentsibilizazio kanpaina berriak martxan



Erdian, Idoia Otaduy Mankomunitateko presidentea zerbitzuaren arduradun eta langileekin.

DURANGALDEKO MANKOMUNITATEA
Durangaldeko Mankomunitateak aurre-rapauso esanguratsua emango du 2025ean, eskualdeko hondakinen kudeaketa jasangarriago eta eraginkorrago baten alde. Azken urteotan egindako lan-ildoaren jarraipena izango da hau, bilketa selektiboaren portzentajeak eta bolumenak handitzeko helburu argiarekin.

Bi kamioi berri: eraginkortasun handiagoa eta ingurumen inpaktu txikiagoa
Zerbitzuaren kalitatea eta jasangarritasuna bermatzeko helburuarekin, Mankomunitateak bi kamioi berri eskuratu ditu 615.938 euroko inbertsioarekin. Ibilgailu hauek azken belaunaldiko teknologia dute: Euro 6 fase E araudia betetzen dute, emisioak murrizteko neurri zorrotzak aplikatzen dituzte, eta diesel motor eraginkorragoak dituzte, erregai kontsumoa eta mantenu lanak nabarmen jaitsita.

Kamioi hauek Durangaldeko eskualdeko ezaugarrietara egokitzen dira bereziki, kontuan hartuta bilketa ibilbide luze eta menditsuak direla, eta herriguneak sakabanatuta daudela. Gainera, ibilgailuen eraginkortasun handiagoak funtzionamendu- eta mantentze-kostuak murriztea ahalbidetuko du epe luzera.

Bilketa digitalizatzeko urratsa: datu zehatzak eta kudeaketa adimentsuagoa
Beste berrikuntza nabarmen bat bilketa digitalizatzeko sistema berrien ezarpena izango da. Kamioi berrietan pisaketa sistemak, GPS eta GPRS sistemak instalatuko dira, bilketa prozesu osoaren jarraipen zehatza egiteko. Horrela, Mankomunitateak uneoro ezagutuko du zein frakzio bildu den, non eta zenbat, eta informazio hori baliatuta, hondakinak hobeto kudeatzeko neurri zehatzak hartuko ditu.


Hondakinen bilketa 2024an:

Sistema hauek, gainera, baliagarriak izango dira herritarrei feedback zuzena emateko, udalerrri bakoitzean bilketa selektiboaren maila zein den jakinarazteko eta, horrela, sentsibilizazioa eta motibazioa indartzeko. Era berean, sistemek aukera emango dute etorkizunean ordainketa bidezko tarifazio sistemak ezartzeko, Europako eta Estatuako araudiek eskatzen duten moduan.

Herritarrentzako baliabide berriak eta sentsibilizazio-kanpainak
Teknologiaz gain, herritarren parte-hartzea funtsezkoa dela jakitun, Mankomunitateak hondakin organikoaren bilketa sustatzen jarraituko du: poltsa konpostagarriak banatuko dira udalerrietako herritarren arreta guneetan, eta horrekin batera, informazio eta sentsibilizazio kanpaina berriak jarriko dira martxan.
Gainera, bilketa selektiboari buruzko informazioa zabalduko da; bereziki, tamaina handiko hondakinen kudeaketari buruzko zalantzak argitzea. Helburua da hondakin mota guztien kudeaketa egokia erraztu eta gaikako bilketaren portzentajeak handitzea, ingurumen-inpaktua minimizatuta eta ekonomia zirkularra sustatuta.

Ingurumenarekiko eta gizartearekiko konpromisoa
Durangaldeko Mankomunitatearen apustu hau bat dator apirilaren 8ko 7/2022 Legeak ekonomia zirkularraren eta hondakinen kudeaketaren inguruan ezartzen dituen helburu eta eskakizunekin. Urrats hauek guztiek emisio murrizketa, baliabideen optimizazioa eta herritarren parte-hartze aktiboa sustatzea dute xede.
Idoia Otaduy Mankomunitateko presidentearen hitzetan, "Hondakinen kudeaketa ezin da soilik azpiegituraren araberakoa izan; herritarren konpromisoa eta parte-hartzea funtsezkoak dira. Horregatik, baliabide berritzaileak eskaintzeaz gain, hezkuntza eta sentsibilizazioa ere indartuko ditugu".

Hondakinen bilketa 2024an



Grafikoa: Durangaldeko Mankomunitatea • Iturria: Durangaldeko Mankomunitatea • Norekin sortua Datawrapper



**anboto
kide**

Anbotokideen
txokoa

**UZTAILEKO
ZOSKETAK**

*Zozketa hauetan
parte hartzeko eman
izena gure webgunean.



Xiberu tabernan
bi gosari bikoitz.
Zornotza.



Aukan izozkiak.
6 izozki edo etxera
eramateko 1/2
litroko 2 tarrina.
Durango.



Basa take away
jaketxeko bowl
osasuntsu berri bat
opari, gozo jateko
zure burua zaindus.



Urkiola Hotela.
egonaldia
eta gosaria
2 pertsonentzako.

EKAINEKO IRABAZLEAK

Mendexa:

Ander Areitioaurtena Totorika,
Eneritz Areitio Alberdi, Nerea Narbaiza Gallastegi
eta Teresa Eguzkiza Gorostiza.

Aukan:

Nagore Bengoetxea Gorritxategi.

Xiberu:

Amalia Roman Onagoitia eta Larraitx Zarrabeitia Salterian.

Okm:

batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko
eman izena gure webgunean.

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



500.000 euro Berano eta Arandoñoko sarbidea hobetzeko

Mallabiko Udalak jakinarazi duenez, obrek sarbide nagusia guztiz berrantolatzea ekarriko dute



Berano eta Arandoñoko sarbideak hobetuko dituzte. MALLABIKO UDALA

M.Z. MALLABIA

Berano eta Arandoño auzoetako sarrerak hobetzeko asmoz, Mallabiko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak hitzarmena sinatu dute, eta, akordioan jasotzen denez, Mallabiko Udalak 500.000 euro erabiliko ditu lan hauek egiteko. Udalak jakinarazi duenez, obrek sarbide nagusia guztiz berrantolatzea ekarriko dute. "Berano eta Arandoño auzoetarako sarbideak hobetzea funtsezko ekintza da bide-segurtasuna bermatzeko, enpresen jarduera indartzeko eta gure azpiegituren konektibitatea errazteko. Proiektu hau Mallabiko garapen iraunkorarekin dugun konpromisoaren parte da; betiere, herritarren ongizatea eta ingurunearekiko errespetua kontuan hartuta", azaldu du Igor Agirre Mallabiko alkateak.

HAPOaren hasierako onarpena, lehen urratsa Abadiño hazteko

HAPOak bide emango du Zubibitarte kalean eta tren geltoki inguruan etxebizitzak eraikitzeke

M.Z. ABADIÑO

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra eguneratua izateko lehenengo urratsa egin du Abadiño Udalak. Martitzeneko bilkuran hasierako onespina eman zuten, eta datorren astetik urriaren 13ra bitartean alegazioak egiteko aukera izango dute herritarrek. HAPO webgunean egongo da, eta herritarrek bertan kontsultatu ahal izango dute. Uztailearen 7ko astetik aurrera, presentzialki kontsultatzeko aukera egongo da udaltzeko aretoan zein Errota Kultur Etxean. Horrez gain, teknikariekin kontsultak egiteko hitzorduak eskatu ahal izango dira, goizez, uztailearen 9an, 16an eta 23an, eta irailean, goizez eta arratsaldean, martitzen eta eguenetan.

Mikel Urrutia alkateak eta Jose Luis Navarro Hirigintza zinegotziak jakitera eman dutenez, HAPOak Abadiño haztea ahalbidetuko du: Zubibitarte kalean 330 etxebizitza egin ahal izango dira, trenbide inguruan 117, eta gainera, Lebario eta Astola bitarteko lursailak industria-lursail bilkatuko dira, baita Tuercas

enpresaren inguruko lursailak ere. Horrez gain, aparkaleku berriak egitea, ibaiertzeko paseoa garatzea eta bidegorri sarea handitzea ekarriko dituela azaldu dute.

"Plan orokor berri bat onartua izateak, Abadiñok gaur egun eta etorkizunean herri moduan dituen erronkak behar bezala jorratzea ahalbidetuko du", adierazi du Mikel Urrutia alkateak. "Indarrean dagoen HAPOak 1989koa da, eta horrek ez die herritarren gaur egungo beharrazin behar bezala erantzuten. Honi esker, herri justuago, orekatuago eta iraunkorago baterantz joango gara", gaineratu du Navarrok.

EAJ kontra

EAJk, oster, hasierako onarpenaren kontra bozkatu zuen. "Ez gaude ados planaren egungo formulazioarekin, eta, beraz, alegazio aldia aprobetxatuko dugu hobekuntza-proposamenak aurkezteko. Abadiñoko hirigintza-etorkizunaren ikuspegi adostuagoa, parte-hartzaileagoa eta bidezkoagoa jasoko duena", esan du Mikel Garaizabal EAJko bozeramaileak.

Memoriaren eraikuntzan sakontzeko berbaldiak

Sorturen 8. Nazio Konferentziaren baitan antolatu ditu hitzaldiak Iratzar fundazioak

M.Z. ABADIÑO

Sorturen 8. Nazio Konferentziaren baitan, Iratzar Fundazioko kideek hainbat solasaldi antolatu dituzte gaur arratsalderako, Zelaieta-ko probalekuan. Solasaldi nagusia 17:30ean hasiko da. Txiki eta Otaegi fusilatutako zutuzela eta Franco hil zela 50 urte betetzen diren honetan, Elena Belokik eta Floren Aozek, Iratx Mateoren gidaritzapean, garai hartako testuinguru politikoari erreparatuko diote. Gaian sakontzeko, 19:15ean hiru solasaldi egongo dira: *Euskaldunaren barbarizazioa*, *Transmisioaren korapiloak eta Euskal Kanta Errebeldea*, *gatzakaren soinu-banda*. Lehenengoan, hizlariak Iñaki Egaña eta Onintza Odriozola izango dira, eta Andoni Olariagag gidatuko du. Bigarren, Lur Albizu eta Olatz Dañobeitia ariko dira, Joseba Permachek gidatuta. Eta, hirugarren, Lander Garcia ariko da.

Sorginestrada eta Udaletxe kaleak urbanizatu dituzte, Otxandion

la 260.000 euro eskatu dute Sorginestrada, Udaletxe eta Elixoste eraberritzeko lehen faseko lanek

Aitziber Basauri OTXANDIO

Amaitu dituzte Sorginestrada, Udaletxe eta Elixoste kaleak eraberritu eta hiritartzeko proiektuaren lehenengo faseko obrak. Hain zuzen, Sorginestrada kalea eta zine zaharreko orubetik Ospital kalerainoko tartea urbanizatu dituzte, 250.960 euroko aurrekontuarekin. Inbertsioari aurre egiteko udalak 50.000 euro inguruko diru-laguntza jaso du Bizkaiko Foru Aldunditik. Bigarren faseko lanak zine zaharreko orubean etxebizitza dotazionalak eraiki eta gero hasiko dira.

Gazteek alokairuan hartzeko izango dira Eusko Jaurlaritzak eraikiko dituen hamar etxebizitzak. Horretarako 1.818.000 euroko aurrekontua izango du. "Lanak uztailan hasia aurreikusitako dugu,

JAURLARITZAK ETXE DOTAZIONALAK ERAIKITZEAN HASIKO DIRA BIGARREN FASEKO LANEKIN

beranduenez irailean", azaldu du Egoitz Garmendia alkateak. "Obrak horiek martxan daudenean, eraikin horren bueltan dagoen inguruguztia urbanizatu du udalak", zehaztu du. Horrela, Sorginestrada, Udaletxe eta Elixoste kaleak eraberritu eta hiritartzeko proiektuko lanak amaituta geratuko dira.

Anbulatorio berria

Orduan ekingo diote anbulatorio berria egokitzeko egitasmoari ere. Iazko ekainean sinatu zuten udalak eta Jaurlaritzak zine zaharreko orubearen lagapen hitzarmena. Etxebizitza horiek Etxebizitza Sailak eraikiko dituela jaso dute hitzarmenean, eta eraikinaren beheko solairua udalaren esku geratuko dela, etorkizunean anbulatorio berria bertan eraikitzeke.



Sorginestrada kalea eta zine zaharreko orubetik Ospital kaleraino urbanizatu dute.

San Antonio ermitatik Elizabarrirako bidea konponduko dute

A.B. OTXANDIO

Otxandionko Udalak San Antonio baselizatik Elizabarrirako baselizara doan bidea konponduko du, datozen asteotan. 350 metro inguruko bide zatia egokitzeke 39.000 euro inguru erabiliko dituzte. Maiñondo kirolguneko asfaltatze obrekin batera egingo dituzte lan horiek.

Joan zen legealdi bukaeran, San Antonio auzoko bizilagunek bide hori konpontzeko eskaria egin zioten udalari. Bada, orain erantzungo zaio eskariari. "Auzotarrek herrira oinezko joan-etorria lasai eta seguru egin ahal izateko, kalitatezko bidea egokitzea da helburua", azaldu dute udal ordezkariak.

Garaitik Hondarribira, ikasturteko azken txangoa egiteko

E.H. GARAI

Garaiko nagusien elkarteak ikasturteko azken txangoa antolatu du. Uztailaren 3an, Hondarribira joango dira bertako alde zaharra ezagutzera eta Bidasoaren bazterreko pasealekuez gozatzera. Autobusak 08:30ean irtengo du Garaitik. Behin Gipuzkoako herrira iritsita, Hondarribiko oinarrizko ezaugarriak ezagutuko dituzte bisita gidatu batekin. 14:30ean batzokian bazkalduko dute, eta arratsaldea nahieran gozatzeko aukera izango dute. Elkarteko kideek adierazi dutenez, deialdi zabala da, elkartetik haragoko kideak ere joateko modukoa. Bazkideek 30 euro ordaindu beharko dute; gainerakoek, 40.

Zaldibarrek nazioarteko hiru proiektu lagunduko ditu diruz

Udalak 6.000 euro bideratuko ditu Nikaraguako, Saharako eta Guatemalako proiektu bana laguntzera



Laguntzetako batekin ur-sistema instalatuko dute Nikaraguan. EUSKAL FONDOA

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Zaldibarko Udalak Euskal Fondoko hainbat lankidetzat programa lagunduko ditu diruz. Aurtun, 6.000 euro bideratuko ditu nazioarteko hiru proiektu laguntzera. Batetik, 1.941,61 euroko ekarpena egingo dio Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoko Informazio Ministerioari. Bestetik, 2.000 euro bideratuko ditu Nikaraguako San Carlos herriko La Esperanza komunitatea laguntzera. Kasu horretan, dirulaguntza udalerriko ur edangarria eta saneamendua hobetzeko sistemak finantzatzera bideratuko da. Azkenik, Guatemalako Fray Bartolome de las Casas hiriko proiektua dago. Udalak 2.058,39 euroekin lagunduko du hango Vista Hermosa auzoan ur-edangarriaren sistema hobetzeko proiektua.

Ingeles klaseak

LET'S
TALK

675 48 68 05
inglesendurango.es

Google-en bilaketa batek gure kalitatea
bermatzen du: 102 iritzi bikain



GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak
eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK,
JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK,
ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

Triatloi txikia Durangon

Urteroko ohiturari eutsiz, Mugarra Triatloi Taldeak Triatloi Txikia antolatu du zapatu honetarako Durangon. 2017tik aurrera jaiotako prebenjaminetarik hasi eta haur-kategoriara (2011-2012) artekoei bideratutako ekimena da, eta umeen artean kirol honekiko zaletasuna piztea da ekimenaren helburua.

Tabirako igerilekuak izango dira ekimenaren erdigunea. Hantxe egingo dute igerian, eta handik irtengo dira korrika eta bizikletan egin beharreko ibilbideak. Umeak adinka banatuko dituzte. Prebenjaminen lasterketa 10:30ean hasiko da, benjaminena 10:45ean, kimuena 11:10ean eta haur-kategoriakoa 11:30ean. Bizikletako tartea igerilekutik Tabirako ermitara arteko zirkuitu bat izango da, eta korrika igerileku inguruan ibiliko dira.



MUGARRA TRIATLOI TALDEA

DURANGALDEA ASTEON

Eitzagako jaiak ospatuko dituzte asteburuan

ZALDIBAR Gaurtik domekara, ekainak 27, Eitzaga auzoko jaiak ospatuko dituzte. Asteburu osoan zehar hainbat ekintza izango dituzte: nagusientzako bazkaria, paella eta patata tortilla lehiaketa, saiheski jana, euskal dantzak, bolo lehiaketa eta herri-kirolak, besteak beste.

Kickboxing txapelketa, Ezkurdi Jai Alain

DURANGO Durangoko Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan 'North Fight Series' kickboxing txapelketa antolatu dute zapaturako. 16:30etik 22:00 ingurura hainbat borrokaldi amateur eta profesional ikusi ahal izango dira. Borrokaldietako batean Unai Calvok parte hartuko du. Durangarrak semiprofesionaletako gerriko bat izango du jokoan. Emakumeetan, besteak beste, Marina Valverde eta Celia Oliveira lako borrokalariak ikusteko aukera egongo da.

Tailer kulturalen eskaintza zabalik Durangon

DURANGO Durangoko Udalak 2025-2026 ikasturtean eskainiko dituen ikastaroen berri eman du. Udaletik jakitera eman dutenez, aurreko ikasturtean eskari handia izan duten bisuteria, kustomizazioa, astronomia eta landare sendagarrien tailerrak errepikatuko ditu. Eta, horiei lau proposamen berri gehituko dizkie: aromaterapia, mindfulness, makramea eta joskintza.



Erromeria andaluziarra zapatuan, Astolan

ABADIÑO De Norte a Sur taldeak erromeria antolatu du zapaturako, ekainak 28, Astolako zelaian. Egunari hasiera txupinazoa jaurti eta pregoia irakurrita emango diote. Egunean zehar hainbat ekitaldi egongo dira; tartean, Rozioko Meza emanaldia, gazpatxo lehiaketa, dantza erakustaldia eta Onda Futura taldearen eskutik disko festa. 23:00etako txokolatadarekin emango dute eguna amaitzat.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - lurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

> anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrindia.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

ZALDIBARKO JAIK 2025



ZALDIBARKO JAIK

EKAINAK 27, 28 ETA 29

XXXIII. areto-futbol maratona kiroldegian.

EKAINAK 28

16:30-19:30 Ekitaldiak rokodromoan herritar guztientzat.

EKAINAK 29

08:30-14:30 XLI. argazki rallya liburutegi zaharrean.

UZTAILAK 3

17:00 Kuadrillen arteko Txallengeko I. proba Zaldia plazan.

18:00 Herrixen Jaixen jaitsiera Zaldia plazatik.

18:30 Donien-atxa.

18:45 Zaldibarko dantzariak; jarraian, jaien hasiera iragartzeko txaplogua jaurtiko du Helmuga elkarteak, eta gero, buruhandiak.

19:30 ELEKTROKUTAU elektrotxaranga, txosnagunetik hasita.

20:00 Odoloste-jana Bekoetxe kalean.

22:30 Kontzertuak txosnagunean: NEKKTAR eta KATU; ondoren, DJ LANDER LUQUE.

UZTAILAK 4

08:30 Familientzako mendi-irteera udaletxeko plazan hasita. Bukatzean, mokadua egongo da eskoletako pilotalekuan.

12:30 Herri-kirolak Zaldia plazan, aizkolariak eta Iparraldeko jokoak.

17:00 Apar festa udaletxeko plazan.

18:00-20:00 Arku jaurtiketa; punteriazko jokoak ume eta helduentzat Olazarko galerian.

18:00 Kuadrillen arteko Txallengeko II. proba Txosnagunean.

18:00 Pilota partidak. XXXVII. etorkizuneko Olazar txapelketa. Finalen errebantxa; lehenengo partida: ETXEBERRIA-REKALDE; bigarren partida: FERNANDEZ ETA LOZA - EGIGUREN ETA LANDA.

19:00 ELEKTROKELA elektrotxaranga, txosnagunetik hasita.

22:30 Kontzertuak txosnagunean: HAZAS, NAXKER ETA KALEKO URDANGAK.

23:00 Dantzaldia: DJ JOSE MARI Euskal Herria etorbidean.

UZTAILAK 5

10:30 3X3 Haur saskibaloi txapelketa kiroldegian.

11:00 JAIZALE Durangaldeko txistulari elkartearen kalejira.

12:00 Tortilla txapelketa eskolako aterpean.

14:30 Herri-bazkaria txosnagunean.

17:00 3X3 saskibaloi txapelketa kiroldegian.

17:00 Kuadrillen arteko Txallengearen final handia txosnagunean.

19:00 Afari-merienda Olea kalean, solomoa eta sardinak.

19:30 ELEKTROTUXFLA elektrotxaranga, txosnagunetik hasita.

22:30 BERANDUEGI taldearekin erromeria txosnagunean. Ondoren, XAUKENA XAUK.

23:00 DJ CANIJO Olea kalean.

UZTAILAK 6

10:30 Antonio Gutierrez GUTI II. memoriale, Bizkaiko txirindulari eskolen arteko proba: hasiberriak, alebinak eta infantilak. Hasiera Autonomia kalean.

11:00 JAIZALE Durangaldeko txistulari elkartearen kalejira.

11:00-13:00 eta 16:00-19:00 Umeen jolas-parkea eskolako patioan (euria eginez gero, kiroldegian).

11:00 Zaldibarko Koralak mezan abestuko du San Andres elizan.

12:00 Euskal dantzak Zaldia plazan.



ZIRKO TXOSKO KONPAINIA

Tavolé Kale-antzerkia

Zirko Txosko konpainiak "Tavolé" ikuskizuna taularatuko du domekan, uztailak 6.

Udaletxeko plazan, 20:30ean

19:00 Bertso-saioa, Zaldia plazan: Miren Amuriza, Onintza Enbeitia, Aner Euzkitze eta Sustrai Colina. Gai-jartzaile: Ainhoa Urien.

20:30 Zirko Txoskoren 'TAVOLÉ' kale-antzerkia, udaletxeko plazan (euria eginez gero, Olazar pilotalekuan).

22:00 Jaietako argazkien emanaldia kontzertuen eszenatokian.

23:00 Su artifiziaalak.

UZTAILAK 10

19:00 Argazki rallyaren emanaldia eta sari-banaketa liburutegi zaharrean.

UZTAILAK 12

Zaldibarko III. Zaldutrail mendi-lasterketa:
09:30 Lasterketa luzearen hasiera
09:45 Lasterketa laburraren hasiera.

capelo
Birgaikuntzak eta Berrikuntzak

SATE FATXADAK
Kanpoko isolamendu termikoa eta sistema
ESTALKIAK
MERKATARITZAKO LOKALAK
ETXEBIZITZAK
ATARIAK
IGOGAILUAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA

Zeharkalea, 10 behe
ERMUA (Bizkaia)
943 172 767 / 629 401 712

1955an sortua
GALLASTEGI
harategiak

ZALDIBAR
Zalduasolo, 8
946 827 038

DURANGO
Antso Estegiz Zumardia, 1
946 812 247

gallastegiharategiak.eus

gaurko
asesoria zaldibar

Zalduasolo 1, behe
Zaldibar - 48250
946 225498
gaurko@gaurko.net

MUELLES ZALDUA S.L.

MALGUEN FABRIKAZIOA OROKORREAN

Tel.: 946 827 801 - Faxe.: 946 827 654
San Andres etorbidea, 1
48250 ZALDIBAR
info@muelleszaldua.com
www.muelleszaldua.com



Jai batzordeko kideak, udal ordezkariak, kartel lehiaketako irabazleak eta Helmugako kideak. ZALDIBARKO UDALA

Egunerokoa alboratu eta jaietan murgiltzeko deia

Zaldibar herriko jaiak ospatzeko prest dago. Udalak, elkarteek eta jai batzordeko kideek egitarau oparo eta anitza prestatu dute herritar guztien gozamenerako. Programako ekitaldi batzuk martxan dauden arren, jaiak uztailaren 3an hasiko dituzte

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Jai batzordeko kideek eta udalak argi eta garbi esan dute: "Uztailaren 3tik 6rako egunetan, egunerokotasuna alde batera utzi eta jai giroan murgiltzera gonbidatu nahi ditugu herritarrak". Deialdia egin dago. Orain, pazientzia apur bat batu eta egitarauko ekitaldiei itxarotea baino ez da falta. Izan ere, zaldibartarrek herriko kale-bazterrak jai giroz betetzeko hainbat ekitaldi dituzte aurretik. Batetik, ekitaldi gastronomikoak daude, urtero hutsik egiten ez duten patata tortilla txapelketa, eta sardina, solomo eta odoloste janak, esate baterako. Musika ere ez da faltako: hiru elektrotxaranga arduratuko dira kaleak girotzeaz, eta beste hainbeste musika talde eszenatoki gainean dantzarako grina eta parranda giroa sortzeaz. Eskaintza kulturalari dagokionez, bertsolariak, koralaren emanaldia, kale-antzerkia eta Jaizale taldearen kalejira egongo dira, eta kirol arloan, azpimarratzekoak dira areto-futbol maratokia, arku-jaurtiketa saioa, saskibaloia, pilota zein Ipar Euskal Herriko herri-kirolen erakustaldia. Ha-

laber, txikienean apar festa eta puzgarriak izango dituzte zain, eta gazteek kuadrillen arteko lehia ugari eta herri bazkaria izango dituzte. Jai batzordeko kideek ekitaldi horiek guztiak herritar askoren borondatezko lanari esker antolatzen direla gogorarazi dute.

Helmugaren txupinazoa

Aurten, Helmuga taldeak izango du txaplogua udaletxeko balkoitik botatzeko ohorea. Elkartek 20 urte bete ditu herriko emakumei ahotza eta laguntza eskaintzen. "Bihotz-bihotzez eskertu nahi ditugu 20 urteko ibilbide honetan gure elkarte kide izan diren emakumeak: hastapenetan jardun zutenak, bidean batu zirenak zein gaur egun dihardutenak. Emakume horien gaitik eta horientzat ari gara lanean", esan dute. Era berean, udalak, jai batzordeak eta Helmugak jaiak erantzukizunez eta errespetuz bizitzera deitu dute: "Zaldibarko emakumeok jaietan lasai ibili nahi dugu, eta ez dugu inolako erasorik onartuko. Zaldibar indarkeria matxistatik eta erasorik gabeko herria izatea nahi dugu".

ACHA-ORBEA EGAÑA Y CIA, S.A.

Foru kalea, 1
48250 ZALDIBAR

946 826 666
tools@aoec-sa.com

Since 1945
80 years

AENOR
AENOR
ISO 9001

SORGIN

Euskal Herria
etorbidea, 8
ZALDIBAR

PAULAREN ZOKOA KAFE
EL RINCON DE PAULA

07:00etatik
aurrera zabalik

Euskal Herria, 18
946 550 481 - Zaldibar

Paularen Zokoa

BARATZA FRUTADENDA URDAITEGIA

Sta. Isabel, 2 behea
Tel.: 946 225 063
Zaldibar, Bizkaia

IMENDIA

- Fotokopiak
- Prentsa salmenta
- Gozokiak

Tel./Faxa: 946 827 413
Zalduasolo E.7 - ZALDIBAR

José David Espinosa Gonzalez

LEUNKETAK eta BERNIZADURAK

**OHOLTZA BERRIAK ETA ERABILITAKOAK
PARKET EZARPENAK, OHOL ETA BALDOSA GAINEAN**

Tel. 94 684 25 17
Mugikorra (Jose David) 687 537 732
jose.pinky@yahoo.com

Artikas Auzoa, 26 - 48288 Ispaster
San Andres Etorbidea 30, 1ºD- 48250 Zaldibar

ELECTRICIDAD EGUZKI, S.L.
ELEKTRIZITATEA

Arzubia, 10 Apdo. 115
48220 MATIENA - ABADIÑO

eguzki@electeguzki.es
689 709 602 Jabi
946 815 201 f: 946 818 658

BARIKUTIK DOMEKARA BOKATAK HERRIKOAN!

Independentziarako indarra
Castet

"Helmuga emakume guztiei zabalik dago"

HELMUGA EMAKUME TALDEA

Helmuga taldeak emango dio hasiera aurtengo Zaldibarko jaiari. Emakume Taldeak 20 urte bete ditu aurten, eta herriko emakumeei taldera batzeko deia egin diete

Maialen Zuazubiskar ZALDIBAR

Zaldibarko emakumeei ahotsa eta laguntza eskaini asmoz, duela 20 urte Helmuga emakume elkarteak sortu zuten Zaldibarren. Aurten, urtemuga borobil horren ospakizunetan murgilduta dabilta Helmuga-kideak, eta herriko jaietan udaletxeko balkoira igo, eta jaiaren hasierako suzeria botatzeko ohorea izango dute. ANBOTO emakume elkarteak zuzendaritzako kideekin izan da, Amaia Garcia, Loli Rajado, Edurne Moreno eta Leonor Peñarekin. Momentu honetan, 65 emakume inguruk osatzen dute taldea.



Ezkerretik hasita, Amaia Garcia, Loli Rajado, Edurne Moreno eta Leonor Peña.

Nola hartu duzue aurtengo jaietako txupinerak izateko gonbidapena?

Leonor Peña: Oso ondo. Geuk proposatu genuen; baiezkoa eman ziguten, eta oso pozik gaude, egia esan.

Pentsatuta duzue zer esango duzuen?

Loli Rajado: Badaukagu, bai, zerbait pentsatuta; dagoeneko testutxo bat prest daukagu.

L. P.: Gainera hemendik aprobetxatu gura dugu elkarteak emakumeei dei egiteko: guztiok zaudete gonbidatuta udaletxeko balkoira. Egun hori guztion izango da.

Amaia Garcia: Taldeko zuzendaritzan laurok gauden arren, Helmuga guztiok gara.

Eta, baduzue jaietarako beste zerbait prest?

Edurne Moreno: Urtero zerbait antolatzen dugu. Azken urteotan DJ bat ekarri dugu, DJ Jose Mari, eta aurten ere bera etorriko da. Uztailearen 4an, barikua, izango da, 23:00etan, Euskal Herria etorbidean.

Elkarteari dagokionez, duela 20 urte sortu zenuten. Nola dago osasunez?

A. G.: Egia da hasieran emakumeei emakumeentzat sortutako ekintza ugari antolatzen genituela, eta hori apurka-apurka murrizten joan zela. Urte batzutan, nahiko geldia egon gara. Baina, azken pare bat urteotan elkarteak berriro indarra hartu du, jende gaztea sartu da, eta horrek haize freskoa ekarri du.

L. P.: Hasi gara berriro ere mugitzen, gauzak antolatzen. Helmuga emakume guztiei zabalik dago, gonbidatuta zaudete.

Bukatzeke, urtemuga ospatzeko antolatu duzue zerbait?

L. P.: Aurten hainbat ekintza antolatzen gabilta 20 urteak behar bezala ospatzeko. Esaterako, uda osterako, udazkene-rako, gauza dezente ditugu.

A. G.: Irteera batzuk antolatu ditugu, eta baita bazkideen afari bat ere, dantzaldi eta guzti. Horrez gain, ardo eta eusko label produktuen dastaketa egitea ere pentsatu dugu.

"JENDE GAZTEA SARTU DA, ETA HAIZE FRESKOA EKARRI DU"

SIKULAN Cutting Tool Technologies

WWW.SIKULAN.COM

KASU BAKOITZERAKO SOLUZIO EGOKIENA

C/ Zubikume 5 - E-48250 Zaldibar - Bizkaia
Tel. 94 682 74 78 - sikulan@sikulan.com

GAI

OSTARGI BERRIA

94 682 69 50

Talka 2.0 Taberna

Tel.: 944 00 18 90
Arantzamendi 1
ZALDIBAR

Begoña Albisua Uribarri
Abokatua

Zaldia-Solo plaza, 4 beheak
48250 Zaldibar

Mob.: 656 702 012
e-maila: balbisua@outlook.es

Ibon Padilla Ibarra
Naturopata kolegiatu zik. 4707

ZUTITU ZENTROA

N.O.F. (Blay metodoa) - OSTEOPATIA -
KIROL TRATAMENDUA -
KIROMASAJEA - AKUPUNTURA -
SOINU TERAPIA - NESA X SIGNAL

Santa Isabel 2, beheak - Zaldibar
AURRETIKO HITZORDUA 618 614 972

Karobi TABERNA

Zalduasolo plaza, 2
48250 Zaldibar
Tel.: 654 619 644

MDP
MDP MECANIZADO DE PRECISIÓN

Solozabal Pab. 35
48250 Zaldibar - Bizkaia
Tel.: 946 827 332
Faxa 946 827 221
info@mecanizadodeprecision.com
www.mecanizadodeprecision.com

kikili

Euskal Herria Etorbidea, 30
Zaldibar
Tel.: 946 047 733
kikili.zaldibar

"Euskal kultura berpizteko mugimenduari ekarpena egin gura izan nion"

IGNACIO ANDREU URIARTE ARTEGILEA

ARTEA Diseinuan zein margogintzan sei hamarkada baino gehiago eginda, durangarraren lanak 'Bizitza baten isileko lana' erakusketan jaso dituzte

Jone Guenetxea DURANGO

60ko hamarkadan, euskal kulturaren susperraldi bete-betean, Durangon antolatutako ekimenen azala eta kolorea ipini zien Ignacio Andreu Uriartek (Durango, 1944). Harrezkero, hainbat artelan sortutako da. 80 urteaz, artista durangarrak merezitako errekonozimendua jaso du Arte eta Historia Museoa erakusketan antolatuta. 'Bizitza baten isileko lana' izenburupean, David Fuente erakusketaren komisarioak sei hamarkadako produkzio artistikoaren 100 pieza baino gehiago batu ditu Durangoko Museoa.

Hainbeste urte lanean, eta zure lehenengo erakusketa ikusgai dago Durangon.

80 urte ditut, eta bizitza osoa daramat margotzen.

60ko hamarkadan Emen taldeko kide izan zinen.



Ignacio Andreu Uriarte Durangoko Arte eta Historia Museoko erakusketan.

Bai, Gipuzkoako, Bizkaiko, Arabako eta Nafarroako kideak ginen. Gipuzkoarrek euskal

artearen konglomeratu bat sortu gura zuten. Pinturaz gainera, dantzariak, abeslariak eta beste

diziplina artistiko batzuetakoak batu gura zituzten. Modernismoa nagusitzen zen. Bizkaian, talde anitzagoa ginen, eta askatasuna eta eskubide sozialak aldarrikatzen genituen, frankismoaren aurrean. Arabarrek, berriz, pintura eta eskultura gaurkotua gura zuten. Arabarrek baldintzak ipini zituzten bizkaitarren artean hiru artista aukeratzeko. Aukeraturako horien artean ni neungoen. Eztabaida handia sortu zen, eta pentsatu nuen, taldearenganako elkartasun lege, ez parte hartzea. Baina, ekimen horretarako eramandako lanak Nafarroara eramane zituzten, erakusketarik antolatu ez arren. Askok beraiei lanak erretiratu egin zituzten, baina beste batzuk ez genituen hartu. Sasoi hartan 22 urte nituen. Bada, 'Rojo y negro' erakusketa hartarako eramandako koadroa Nafarroako Museotik berreskuratzea gozarena izan da. Museoa egon nintzen koadroa heldu zenean. Gioconda balitz lege enbalatuta zegoen. Poz handia hartu nuen paketetik atera eta margolana berriro ikusi nuenean.

Zein momentutan hasi zinen margotzen eta zaletasuna lantzen?

Txikitan gaixorik egon nintzen, eta egoera hartan asko marrazten nuen. Nire denbora librean beti marraztu izan dut. Nire helburua ez da sekula izan pinturatik bizitzea. Arrisku handiko ofizioa zela uste izan dut beti. Maristetan Komertzioa ikasi

nuen, eta banku baten aritu nintzen lanean. Baina, artearenganako zaletasunari lotuta, arte grafikoetan lan egin dut.

Herrigintzako hainbat proiekturi irudia jarri diezu.

Bai, Tronperriren irudia sortu nuen, geuk sortu genuelako taldea. Eta, baita Kriskitinen kartelen bat eta bandera ere. Antzerkian ere jardun nuen.

Lehenengo Durangoko Azokaren kartela sortu zenuen. Kulturalki zein momentu bizi zenuten?

Euskal kultura berpizteko beharrezko zegoen sasoi hartan. Mugimendu hari ekarpen egitea gura nion.

Gaur egun branding arloan egiten diren lanen aurrekaria zara.

Gazte bat nintzen, marraztea gustuko zuena, eta enkargatzen zizkidaten lanak egiten nituen. Kartel bat edo beste, edozein enkargu egiten nuen.

Zure lanak errekonozimendua izan duela sentitzen duzu?

Nire lagunak eta ingurukoek bazekiten marrazten nuela. Liburuen azalak, Pasiñoaren kartelak...

Erakusketan agertzen ez diren Durangoko hainbat irudi ezagun ere zuk sortutakoak dira. Esate baterako, Gure Kabiya tabernako txorien irudia edo Kurutzia Ikastolaren logotipoa?

Bai, horrela da. Erakusketan ez dauden arren, horiek ere neuk diseinatuak izan ziren. Gogoan dut Ikastolarena Leopoldo Zugazak enkargatu zidala.



GAÍ LIBREAN

ESTI ALBIZU GOIKOETXEA BIZENTA MOGEL

Gazteen artean irakurzaletasuna sustatzeko gakoaren bila

Gaur egungo gizartean, helduok sarritan kexatzen gara gazteek gutxiago irakurtzen dutelako. Baina, horren atzean, galdera handiago bat dago: zein da gazteen artean irakurzaletasuna berreskuratzeko eta sustatzeko gakoa? Testuinguru digital eta azkar honetan, non pantailak eta informazioaren kontsumo etengabeak nagusi diren, irakurketa tradizionalarekiko atxikimendua galtzea errazagoa bihurtzen da.

Gakoaren bila, ezin dugu ardura gazteen gain utzi; erakunde/helduok dugu ardura handia. Izan ere, irakurketara emozioz heltzea ezinbestekoa da, batez ere haurtzaroan, atxikimendu positiboa eta iraunkorra sortzeko. Ez da nahikoa "irakurri egin behar da" esatea; gure jardunean eta bizimoduan irakurketa plazer gisa erakutsi behar dugu, liburuak etxean lekua izan dezaten eta gazteen gustuak eta erritmoak errespetatuak izan daitezen.

Udako oporrek aukera ezin hobea eskaintzen dute irakurzaletasuna berriz pizteko. Atsedendian eta giro lasaian, gazteek beren erritmoan liburuetan murgiltzeko aukera handiagoa dute.

Bibliotekek eta liburu-dendek gazteen irakurzaletasuna sustatzeko aliatu gisa funtzionatzen dute, eta, halaber, helduek (familiak eta irakasleak) rol garrantzitsua izan dezakete gazteak horretara bideratzerakoan.

"UDAKO OPORRAK AUKERA EZIN HOBEA ESKAINTZEN DUTE IRAKURZALETASUNA BERRIZ PIZTEKO"

Hainbat espazio eskaintzen dituzte, non gazteek liburuak aurki ditzaketen, eta gainera, irakurketarako giro egokia eta gune lasaiak sortzen dituzten. Liburu-dendek eskaintzen dituzten liburuen aukeraketa zabala eta bibliotekek antolatzen dituzten ekintza eta irakurle-klubek gazteen interesa piztu eta motibatu dezakete. Helduak ere eredu izan daitezke gazteentzat, biblioteka eta liburu-dendetara bideratuz eta irakurketaren garrantzia transmitituz, horrela gazteen irakurzaletasuna sustatzeko.

Azken finean, gazteen irakurzaletasuna eraikitzeko gakoa ez da soilik liburuak eskaintzea, baizik eta emozioak, ereduak eta ingurune lagungarriak sortzea. Eta hori lortzeko, guztion inplikazioa beharrezkoa da —helduak eta gazteak elkarrekin, irakurketaren bideari segida emateko.

BERRIZKO JAIAK

EKAINAK 27

19:00 PREGOIA ETA TXUPINAZOA, UDAL KONTSEILUA. Udaletxean.

Ondoren, jaietako KARTEL LEHIAKETAKO sari-banaketa udaletxean.
Ondoren, urtero legez, **SARDINA-JANA.**

20:00 DONIEN ATXA eta DANTZARI DANTZA entsegua. Elizondo plazan.

21:30 LUHARTZ taldearekin **erromeria.** Elizondo Plazan.

23:00 Kontzertua: OLD TIME SPOOKS + GAILU. Txosnagunean.

EKAINAK 28

10:00 Kuadrillen bazkarirako lekuen zozketa. Elizondo plazan.

11:00 UMEENTZAKO HERRI KIROLAK. Elizondo plazan.

12:00 HERRI KIROLAK TXAPELKETA OFIZIALA. Elizondo plazan.

14:00 PAELLA LEHIAKETA udaletxeko lorategian.

15:00 HERRI-BAZKARIA. Ondoren, bingo musikatua.

Txosnagunean.
Txosna batzordeak antolatuta.

18:00 MOZORROEN JAITSIERA. Txosna batzordeak antolatuta.

18:30 OIHAN VEGA diskofesta. Elizondo plazan.

19:00 Herriko IGEL TXAPELKETA. Izen-ematea 18:30 - 19:00.

22:00 OIHAN VEGA diskofesta Elizondo plazan.
Ondoren, DJ MARIA BLESSIVE.

23:00 Kontzertua: MI BUENAVENTURA. Ondoren, ZUTIK taldearekin erromeria. Txosnagunean.

EKAINAK 29 SAN PEDRO EGUNA

12:00 Meza nagusia. Ondoren, **DANTZARI DANTZA.**

18:00 TIO TERONEN SEMEAK Haurreskolari ikuskizuna. Elizondo plazan.

19:00 BERTSO SAIOA txosnagunean. Txosna batzordeak antolatuta.

20:00 DANTZARI DANTZA.

22:00 Kontzertua: BIGBLACK RHINO. Eskolako patioan.



Berriz EKAINAK 27
Erromeria
Luhartz taldea.
Elizondo plaza, 21:30ean

EKAINAK 30

12:30-14:00 // 16:00-19:00 UMEENTZAKO UR PARKEA: Jumping, puzgarriak eta abar. Kiroldegiko aparkalekuan.

16:00 BOLO IKASTAROA GAZTEENTZAT. (8-16 urte bitartean). Bolatokian.

17:00 TIRAGOMA TXAPELKETA. Udaletxeko lorategian. Hainbat maila.

19:00 TROCOS LUCOS ZIRKUA 'TARTANA'. ZIRKU AKROBATIKOA BASKULA. Eskolako patioan.

22:00 Kontzertua: OILAR BELTZAK. Rantxerak. Elizondo plazan.

UZTAILAK 1

11:00 FAMILIENTZAKO TAILERRAK. ESKULANEN

FABRIKA FAMILIAN. Kolorezko harea duten koadroak eta zapi tailerra. Udaletxeko lorategian.

11:00-19:00 DIWOAK bilatzen. Ginkana (adin guztietarako). Udaletxeko lorategian.

16:00 Mutilen III. eta Mistoen VI. FRONTENIS TXAPELKETAKO FINALAK. Olakueta frontoian.

19:00 DJ MARRAZO tabernarik taberna, Urtiaga plazatik hasita. Ondoren, ZUMBA. Txosna batzordeak antolatuta.

23:00 ALTXA PORRU taldearekin **erromeria.** Elizondo Plazan.

23:00 Kontzertua: MEISON + LUKIEK. Txosnagunean.

UZTAILAK 2 SANTA ISABEL EGUNA

12:00 Meza nagusia.

Ondoren, **DANTZARI DANTZA.**

14:00 JUBILATUENTZAT BAZKARIA. Bazkalostean musika. Kiroldegian.

18:00 PICCOLO CAMERINO. **Magia Clown Umorea** Malabareak. Adrián Conde. Eskolako goiko patioan.

19:30 BARBAKOA. Txosnagunean. Txosna batzordeak antolatuta.

20:00 DANTZARI DANTZA. Elizondo plazan.

20:30 TORTILLA LEHIAKETA Udaletxeko lorategian.

23:00 DEABRU BELTZAK. 'SU TALKA' Kiroldegitik udaletxeko lorategira.

APATAKO JAIAK

EKAINAK 27

18:00 Aurpegia margotu.

21:00 Bakailao eta tortilla txapelketak. Herri-afaria. Ondoren, Itzal erromeria eta Egurra ta Kitto after taldea.

EKAINAK 28 MOZORRO EGUNA

MOZORRORAKO GAIA: AZOKA.

12:00-14:00 Haurrentzako azoka jolasak.

13:00 Igel txapelketa.

14:30 Kuadrillen paellak.

17:00 Mus txapelketa.

18:00 Barsanti antzerkia: 'Legea gu gara'

19:00 Karropoteoa.

21:00 Kontzertuak Gaztetxean.

23:00 Fane-ren kontzertua eta Zirkinik Bez erromeria.

EKAINAK 29

11:00-14:30 Nekazari eta Artisau Azoka.

12:00 Euskal Dantzak.

16:30 Umeen pilota finalak. **Pelota Goxua txapelketako finalak.** Herriko pilota partidua. Ondoren, txopoa bota eta txokolatea.



Atxondo EKAINAK 27 Bakailao eta tortilla txapelketak
Apatako jaien barruan, bakailao eta tortilla txapelketek aurten ere ez dute hutsik egingo. Txapelketen ondoren, herri-afarian batuko dira. Afalostean Itzal taldearen erromeria eta Egurra eta Kitto After taldearen kontzertua egongo dira.
Frontoian, 21:00etan

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENA-GO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 27

DURANGO Sanpedroak
Txistulariak, 09:00etan.
DRTren emakumeen taldeak
jaurtitako txupinazoa, 19:30ean.
Tortilla jana, 20:00etan.
DJ gau herrikoia, 21:30ean.
Tabira auzoan.

DURANGO Erakusketa
'Bizitza baten isileko lana'. Ignacio
Andreu Uriarte durangarraren lanak.
*Arte eta Historia Musean,
uztailaren 20ra bitartean.*

IURRETA Kultur Astea
Goiuriko Ama elkarteko XXIII. Kultur
Astea: Igel eta karta joko txapelketak.
Nagusien Egoitzan, 16:00etan.

ZALDIBAR Sanpedroak
Nagusientzako bazkaria, 14:00etan.
Umeentzako pintura eta marrazki
lehiaketa, 18:00etan.
Txokolate jana, 19:00etan.
Donien atxa altxatzea, 19:30ean.
Eitzaga auzoan.

ZORNOTZA Sanpedroak
Txupinazoa eta suziariak, 19:00etan.
Triki Piu Band, eta, hirugiharra eta
sardinak.
Dj Zirkin, 22:00etan.
Boroa auzoan.

ZAPATUA 28

ABADIÑO Erromeria
Txupinazoa, 12:15ean.
Pregoa, 12:20an.
Rocioko meza (De Norte a Sur
abetesbatza), 12:30ean.
Ohorezko rebujitza, 13:30ean.
Rocioko abesbatza (sevillanak eta
runbak), 13:45ean.
Gazpatxo txapelketa, 14:30ean.
Herri-bazkaria, 15:00etan.
Gaztelu puzgarriak, 16:00etan.
Etxola lehiaketa, 17:00etan.
Erromeroen hautaketa eta sari-
banaketa, 17:30ean.
Dantza erakustaldia, Hipolito Alvarez eta
Olga Pascual zaldizkoekin, 18:00etan.
Kapela txapelketa, 19:00etan.
Palomita banaketa, 19:30ean.
Disco-festa 'Onda Futura', 20:00etan.
Txokolatada, 23:00etan.
Astolan.

ABADIÑO Bisita gidatua
'Natur parkean murgilduta'
(Gerediaga Elkartea eta Urkiola Landa
Garapena). Doako bisita gidatua.
Aldez aurretik izena eman behar da,
eta antolakuntzaren baieztapena jaso.
Gerediagara deitu daiteke (94 681 80
66) edo mezua bidali *gerediaga@
gerediaga.eus* helbide elektronikora.
Mendirako oinetakoak eta ura eraman
behar dira.
Urkiolan, 16:00etatik 19:00etara.

DURANGO Sanpedroak
Marmitako txapelketaren mahai
banaketa, 09:00etan.
Kalaka gazteen jolasak, 11:30ean.
Lapiko aurkezpena, 14:30ean.
Sari-banaketa, 15:30ean.
Mus, partxis eta igel txapelketa,
17:00etan, Ibaizabalen.
Sama siku fanfarrea, 17:30ean.
Meza, 19:00etan.
Talotegia, 20:00etan.
Kantari jotzea, 20:30ean.
Nonbait erromeria, 21:00etan.
DJ Kuku eta Kene, gauerdian.
Tabira auzoan.

ELORRIO Bisita gidatua
'Zenita Berdea' (gaztelaraz). Izena
eman behar da, 94 682 0164 edo
688 77 62 70 telefono zenbakietara
deituz edo *turismoa@elorrio.eus*
helbide elektronikora idatziz.
Elorrion, 11:00etan.

IURRETA Bizikleta-irteera
Lekeitiora irteera. Txirrindulari Elkartea.
Iurretan, 08:00etan.

IURRETA Sanmartiñek
Donien atxa altxatzea, 18:00etan.
Dantzarien azken entseguak.
Tortilla txapelketa eta afaria,
19:00etan. Afalostean, bertsolariak.
Amatza auzoan.

IURRETA Kultur Astea
Goiuriko Ama elkartearen XXIII.
Kultur Astea.
Meza, 13:00etan, San Migel elizan.
90 urteko bazkideei omenaldia.
Anai-arteko bazkaria eta karta joko
txapelketaren sari-banaketa.
Ondoren, dantzaldia.
Nagusien Egoitzan, 14:30ean.

ZALDIBAR Sanpedroak
Paella eta patata tortilla lehiaketa,
12:30ean (aurkezpena eta sari-



KHANTORIA

DURANGO Musika
Ander Berrojalbizek (bibolina) eta Maider Lopezek (biola) musikatutako hiru
kontakizun eskainiko dituzte Durangon. Joseba Sarrionandia, Teresa Wilms
Montt eta Ander Berrojalbizen hiru kontakizun "harrigarri".
Uztailak 3, eguena, Kurutzesantu musean, 19:00etan.

banaketa 14:00etan).
Ondoren, herri-bazkaria.
Bolo jaurtiketa, 18:00etan.
Bolo txapelketa, 19:00etan.
Saiheski jana, 20:00etan.
Jaiak girotzeko afaria, 21:00etan.
Eitzaga auzoan.

ZORNOTZA Sanpedroak
Umeen jolasak, 12:30ean.
Sukalki txapelketa, 14:00etan.
Briska txapelketa hirunaka, 17:30ean.
Tute txapelketa, 19:30ean.
Merhezi erromeria, 21:00etan.
Dj Zirkin, 23:00etan.
Boroa auzoan.

DOMEKA 29

DURANGO Sanpedroak
Umeentzako goitibeherak,
11:00etan.
Talotegia, 11:00etan.
Herri-kirolak, 12:30ean: Urdax
Magunazelaia, Karmele Gisasola,
loritz Gisasola eta Jon Gisasola.
Klown magoa: Piccolo Camerino,
18:30ean.
Bertsolariak, 19:30ean: Maialen
Lujanbio, Eneko Abasolo 'Abarkas',
Txaber Altube eta Alaitz Katarain.
Tabira auzoan.

DURANGO Mendi-irteera
Mendilagun irteera: Arantzazu-Duru-
Urbia-Arantzazu. Izena emateko 639
400 786 telefono zenbakira
whatsapp bidali daiteke.
*San Rokeko aparkalekuan,
08:15ean. Bestela, 09:15ean,
Arantzazun.*

DURANGO Musika
Durango Kantari, Egundo!
taldearekin.
Udaletxeko plazan, 12:30ean.

MAÑARIA Bisita gidatua
'Harri herria' (Gerediaga Elkartea
eta Urkiola Landa Garapena). Doako
bisita gidatua. Aldez aurretik izena
eman behar da, eta antolakuntzaren
baieztapena jaso. Gerediagara deitu
daiteke (94 681 80 66) edo mezua
bidali *gerediaga@gerediaga.eus*
helbide elektronikora. Mendirako
oinetakoak eta ura eraman behar
dira.
*Herrigunean hasita, 10:30etatik
12:30era.*

IURRETA Bizikleta-irteera
Zumeltzara irteera. Txirrindulari
Elkartea.
Iurretan, 08:00etan.

IURRETA Sanmartiñek
Auzoko dantzariak, 12:00etan.
Ondoren, luntxa.
Auzo bazkaria, 15:00etan.
Tute txapelketa, 16:30etan.
Umeentzako jolasak, 17:00etan.
Amatza auzoan.

ZALDIBAR Sanpedroak
Ardoa eta galletak banatuko dira,
13:00etan, San Pedro ermitan.
Euskal dantzak, 13:45ean, parkean.
Txirikil joko tradizionala, 14:00etan.
Herri-kirolak: Asto-probak,
18:00etan.
Errifaren zozketa, 20:00etan.
Azken traka, 21:00etan.
Eitzaga auzoan.

ZINEMA

DURANGO
ZUGAZA ZINEMA
F1
Barikua 27: 17:30, 20:30.
Zapatua 28: 18:00, 21:00.
Domeka 29: 17:00, 19:30.
Astelehena 30: 17:15, 20:15.
Martitzena 1: 17:15, 20:15.
Eguaztena 2: 19:00.
M3GAN 2.0
Barikua 27: 18:00, 20:30.
Zapatua 28: 18:00, 21:00.
Domeka 29: 17:00, 19:30.
Astelehena 30: 18:00, 20:15.
Martitzena 1: 18:00, 20:15.
Eguaztena 2: 19:00.
Padre no hay mas que uno 5
Barikua 27: 18:00, 20:30.
Zapatua 28: 17:00, 19:30, 21:30.
Domeka 29: 17:15, 20:00.
Astelehena 30: 18:00, 20:15.
Martitzena 1: 18:00, 20:15.
Eguaztena 2: 19:00.

ZORNOTZA
Virgenes
Barikua 27: 20:00.
Zapatua 28: 20:00.
Domeka 29: 20:00.
Astelehena 30: 20:15.
Rescate congelado
Zapatua 28: 17:00.
Domeka 29: 17:00.

ZORNOTZA Sanpedroak
Meza, Paula Aurrekoetxea eta
Antonio Apraizen omenez,
12:00etan.
Txistulariak. Soinutxikie-ren
triki-kantu-dantza, 13:15ean.
Briska txapelketa binaka, 17:30ean.
Boroa auzoan.

ASTELEHENA 30

ZORNOTZA Sanpedroak
Meza, auzoko hildakoen eta
bazkideen omenez, 12:00etan.
Txistulariak eta Andra Mari
ikastolako gurasoen abesbatza.
Igel txapelketa, 13:30ean.
Auzokoen bazkaria, 14:30ean.
Boroa auzoan.

EGUAZTENA 2

IURRETA Berbaldia
'Literaturaz berbetan': Ainhoa Urien.
Abadetxea, 19:00etan.

BARIKUA 4

IURRETA San Martin Eguna
Meza eta uren bedeinkazioa,
12:00etan.
Luntxa trikitilariekin, 13:00etan.
Amatza auzoan.



Oier Luengok hirugarren denboraldia osatu du Oviedorekin. REAL OVIEDO



Jokalaria eta zaleak igoera ospatzen. REAL OVIEDO



Luengo pozez gainezka, partidua amaitu ostean. AREAL OVIEDO

"Oviedoko zaleei poz hori ematea sekulako sentsazioa da"

OIER LUENGO REDONDO ZORNOTZA, 1997

FUTBOLA Futbol jokalaria zornotzarrak historia egin du Real Oviedo futbol klubean. Lortutakoa igoera bat baino gehiago baita; ilusioa itzuli diete urte askoan gorriak ikusi

Joseba Derteano ZORNOTZA

Oier Luengok ez du berehalakoan ahaztuko Real Oviedon osatu duen hirugarren denboraldia. 2003an arazo ekonomiko larriak eraginda Hirugarren Mailara jaitsi zen taldeak 24 behar izan ditu elitera bueltatzeko eta Luengo lorpen historiko horren parte izan da.

Zelan joan dira ospakizunak?

Imajinatu dezakezu (barrez). Jendeak ospatzeko gogo handia zuen. Irudiak ikustea besterik ez dago.

Lortu duzuenak igoera batena baino esangura sakonagoa du.

Ni hona heldu nintzenetik zaleek berdina errepikatu didate: asko sufritu behar izan dutela, urte gogorrak izan direla, eta lehen mailara itzultzea amesten zute-

"EZ DAKIT HAU DEN NIRE URTERIK ONENA, BAINA NI HONEKIN GERATZEN NAIZ BIZITAKOAGATIK"

la. 24 urteren ostean zaleei poz hori ematea sekulako sentsazioa da. Ez dakit berriro horrelakorik bizi izango dudana.

Une batean kanporaketa oso alda-pa gora zegoen. Miranda de Ebron 1-0 galduta, eta etxean 0-1 galtzen.

Egoera beltz zegoen, bai. Iaz gertatutakotik ikasi egin dugula uste dut. Orduan ere finalean geunden. Itzulerako neurketa Bartzelonako Cornellan jokatzen genuen, eta Espaynolek minutu gutxian gol bi sartu zizkigun. Ez genuen egoera kudeatzen

asmatu, eta eurak igo ziren. Gogorra izan zen, baina ikasgaiak atera genituen.

Zelan gogoratzen dituzu partidua amaitu osteko uneak?

Zoramena! Hainbeste irudi etortzen zaizkit burura, hainbeste emozio... Bat bereziki gogoratzen dut. Zornotzako lagunak partidua ikustera joan ziren. Harmailetan goi-goian zeuden. Aldageletara nindoala, esku batek heldu ninduen. Buelta eman, eta kuadrillako lagun bat zen. Nik ez dakit zelan, baina batzuek jaistea lortu zuten. Betirako geratuko zaidan oroitzapena da.

Mirandes taldean euskaldun asko dago. Baten bat ezagutzen duzu?

Bilbao Athleticeen ibili nintzenetik Hugo Rincon ezagutzen dut. Berarekin dut hartueman handiena. Mirandesek denboraldi historikoa egin du, eta pena da ateetan geratzea. Hazteko balio izango diela uste dut, guri balio izan zigun moduan. Maila handiko jokalariai dituzte.

Zentral postuan asko jokatu duzu aurten, 32 partidu. Zure ibilbideko denboraldi onena izan da?

Ez dakit hau den nire urterik onena, baina ni denboraldi honekin geratzen naiz bizitako guztiagatik. Egia da asko jokatu dudana, baina iaz oraindino gehiago jokatu nuen. Beti gozatzeko saiatzen naiz, gauzak ondo joan zein ez. Garrantzitsua da hori.

Ondo defendatu ez ezik, bi gol sartu dituzu, eta asistentzia bat eman.

Profesional nabilenetik gerturatu ohi naiz aurkarien areara, eta noizean behin, golen bat heltzen da. Aurten bi izan dira, eta pozik nago.

Nori eskaintzen diozu lorpena?

Nire bikotekide Olatzi, familia osoari eta lagun guztiei. Eskerrik asko denei.

Igoera tartean, promesarik egin duzu? "Igoera lortzen badut, hau edo bestea egingo dut"

Aurten ez. Iaz, igotzen baginen ilea urdinez tindatuko nuela esan nuen, baina gauzak ez zirenez nahi bezala irten, aurten promesarik ez egitea erabaki dut.

Klubarekin 2027ra arteko kontratua duzu. Datorren urtean Oviedorekin Lehen Mailan ikusiko zaitugu?

Bai, Oviedon jarraituko dut, klub historiko honekin gozatzen. Gainera, kasualitatez, datorren denboraldian klubaren mendeurrena da. Patuak hala nahi izan duela ematen du.

Mendeurrena aurten ospatzen dabilen talde bat SD Amorebieta da, eta bertan hezi zinen. Aurten mailaz jaitsi da. Taldearen ibilerak jarraitu dituzu?

Jakina jarraitzen dudana. Zornotzarra naiz, eta umetatik han jokatu du. Kasualitatez, gradetatik jaitsi eta lehenengo zoriondu ninduen laguna Jon Larrea Amorebietako presidentearen semea da. Pena eman dit kluba mailaz jaitsi izanak. Baina, Amorebietak nortasun borrokalaria du, eta hurrengo denboraldian igotzea opa diet.

Joseba Derteano ZALDIBAR

Zaldibarko areto-futbol maratokia klasiko bat da udako agendan. Aurten 33. edizioa beteko du. Richard Rodríguezek (Zaldibar, 1974) eta Alex Martinek (Zaldibar, 1977) txapelketako aldi guztietan parte hartu dute, bitan salbu. Aurten ere gogotsu daude.

Hainbeste aldiz jokatuta, inoiz lortu duzue txapelketa irabaztea?

A.M.: Bai. Orain 15 bat urte, Zaldibarkoa ez ezik, Berrizko, Mallabiko eta Ermuko futbito txapelketak irabazi genituen urte berean.

R.R.: Behin, Berrizko txapelketa elkarrekin irabazi genuen. Zaldibarko onenak batu ginen talde hartan.

Txapelketa osasuntsu dago ala sasoi hobeak bizi izan ditu?

R.R.: Sasoi hobeak bizi izan ditu. Lehenengo hamarkadan, 30 taldetik gora batzen ziren. Aurten 13 talde daude, iazko kopuru bera. Garai batean, herri askotan zeuden futbito maratokiak: Berrizen, Elorrión, Mallabian, Ermuan... Zornotzan ere ezagutu izan dut. Orain Berrizen ez dago, eta Mallabian ere ez. Gehienak desagertuta daudela esango nuke.

Ardoak hobera egiten du urteen poderioz. Eta, zuen jokoak?

R.R.: Garai bateko sasoirik ez, baina gerra emateko prest gaude.

A.M.: Esan dezagun orain gurago dugula pasea geuk eman, espaziora korrika egin baino (barrez).

"Garai bateko sasoirik ez, baina gerra emateko prest gaude"

RICHARD RODRIGUEZ MARTINEZ ETA ALEX MARTIN CASTRO FUTBITO JOKALARIAK

ARETO FUTBOLA Gaurtik domekara, Zaldibarko areto-futbol maratokiaren 33. aldia lehiatuko da. Rodríguez eta Martin ia edizio denetan aritu dira. Aurten ere ez dute



Richard Rodríguez eta Alex Martin, Karobi taldearen kamisetari eusten.

Zuen ibilbideak errekonozimendua izan du. Omenaldiak jaso dituzue.

R.R.: Zalduearen kamiseta bana oparitu digute. Niri orain urte bi, eta Alexi iaz. Errokonozimendu polita da, eta esker oneko gaude.

Badakizue omenaldiei buruz zer esaten den, ezta?

R.R.: Erretiratzeko sasoi dela, ezta? Bada, ez da gure kasua. **A.M.:** Nik, badaezpada, iaz aurreratu nuen aurten ere jokatu nuela! Aurten biok talde

berean jokatu dugu gainera, Karobi taldean.

Zein da txapelketan bizi izan duzuen unerik dibertigarriena?

R.R.: Gogoan dut 'Los Cannabis 500' taldea, La Estacion tabernan batzen zen Zaldibarko kuadrilla

baten. Gehienak ez ziren futbolean ibiliak, eta bazekiten ez zutela irabaziko, baina ikuskitzuna ematen zuten. Jende asko joaten zen eurak animatzera.

Zein da bizitako porrot garrantziena?

R.R.: Hiru urtez segidan finalak galdu izana, talde beraren kontra gainera: 'Cacique 500' taldea, ermuarra. Oso onak ziren, urte haietan ezinezkoa zen eurei irabaztea.

A.M.: Nire lehen parte-hartzean, 16 urterekin, finalerdietan kanpoan geratu ginen, penaltietan. Momentu horretatik aurrera, txapelketa irabaztea nuen helburu bakar. Urte batzuk joan ziren eta kostatu zen, baina azkenean lortu nuen.

Richard zelakoa da Alex futbolista moduan?

R.R.: Erreferente bat herrian. Bilbao Athletice aritu zen, jubeniletan, eta gutxi falta izan zitzaion saltoa emateko. Seguruenik Zaldibarrek eman duen futbol jokalaririk onena da, Jose Luis Mendilibarrekin batera.

Alex, zer diostazu Richardi buruz?

R.R.: Hauspoa du, eta korrika egiten ez da aspertzen. Defenda zaitzan nahi ez duzun jokalaria da.

Txapelketan Var-a jartzearen alde zeundekete?

R.R.: Adin honetan ez zaigu komeni. Ez letorke ondo gure trikimailu txikiatarako: aurkariari heldu... (barrez)

A.M.: Eztabaida gehiago legoke. Ondo gaude gauden moduan.



JOKALDIA

IÑAKI IZA ZARAZUA PILOTARI OHIA

Indarra latente

Kirolean, uda proba berriak egiteko garaia izaten da, eta esku-pilotan, aurten ere, berritasun bat izan dugu. Iaz jokoen edo seten zenbaketa probatu zuten moduan, aurten lau t'erdiko partiduetan sarea lau koadro eta erditik egiteko araua ezarri dute. Bata probatu, bestea ezarri: aldea dago batetik bestera.

Horrekin lotuta, bitxia izan zen joan den ekainaren 15ean Larrabetzuko jaialdiaren telebistako emanaldian ikusi genuena. Bitxia eta adierazgarria.

Elena Azpeitiak, ETB1eko kazetariak, hiru protagonista elkarriketatu zituen: Errandonea, Altuna eta Dario. Eta, espero zitekeen bezala, gaiari buruz galde-tu zien. Lehenengoak adierazi zuen berritasunari buruzko informazio guztia Pilotarien Elkarteari eman zitzaiola. Bigarrenak, berriz, informazioaren erdia soilik iritsi zitzaiola. Eta hirugarrenak, aldiz, ez zuen aldaketaren berri erdirik ere jaso. Telefono hautsiaren jolasean ari zirela zirudien.

Aspeko zuzendari komertzialaren esanetan, Pilotarien Elkarteari egindako bilera batean arau berria aurkeztu zuten, eta bertan zehaztu ere aurrerantzean lau t'erdiko partida guztietan aplikatuko zela, txapel-

"ALTUNAK ESAN BEZALA, PILOTARIEK INDAR HANDIA DUTE. ARAZOA DA INDAR HORI ORAINDIK LATENTE DAGOELA"

keta ofizialetan barne. Gainera, elkarriketaren amaieran, ironiaz erantsi zuen: "Bateren bat, agian, ez zen enteratu izango".

Bestalde, buruz buruko txapelduna serio azaldu zen kameraren aurrean, eta haserre nabaria zen bere hitzetan: "Esan ziguten, baina, tira, pilotariak badugu indarra eta denon artean hitz egin beharko dugu".

Horrekin batera, burura datorkit duela gutxi podcast batean entzun nuena. Bertan giza gorputzean latente egon daitezkeen bakterioak aipatzen ziren. Hau da, bakterio batzuk gorputzean presente egon daitezke sintomarik eragin gabe, eta baldintza jakin batzuetan aktibatu, gaixotasuna eraginez.

Altunak esan bezala, nik ere uste dut pilotariak indar handia dutela. Arazoa da indar hori oraindik latente dagoela, bakterio batzuk giza gorputzean egoten diren moduan. Aktibatze baldintzak aspalditik daude; orain, indar hori aktibatzea besterik ez da falta.

GUARDIAKO BOTIKAK

Ekainak 27, BARIKUA
09:00-09:00
Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
Ekainak 28, ZAPATUA
09:00-09:00
Irigoién, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Ekainak 29, DOMEKA
09:00-09:00
Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
09:00-22:00
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Ekainak 30, ASTELEHENA
09:00-09:00
Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Uztailak 1, MARTITZENA
09:00-09:00
Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
09:00-22:00
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Uztailak 2, EGUAZTENA
09:00-09:00
Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
09:00-22:00
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Uztailak 3, EGUENA
09:00-09:00
Etxebarria, Montevideo etorb. 2 - Durango
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
09:00-22:00
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

24 orduz zabalik dauden farmaziak dauden zerrendan.
22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: www.anboto.org/botikak

ZORION AGURRAK



Ekainaren 21ean, 5 urte.
Zorionak Wintxi! eskue beteta,
5 urte! Askoi maitte zaittugu.



Ekainaren 23an, 10 urte.
Zorixonak politte!
Pillo bat maitte zaittugu!!



GOZATU GOZOTEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
☎ 661 40 14 00
f Gozatu Gozotegia
i gozatugozotegia

Urte askotarako!

Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean **GOZATU gozotegiko tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurraekin batera.


Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet
Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta *Anboto.org/ zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoa
Mezua bidali *zorionagurrak@anboto.org* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Ordezkaritzak
Etorri zaitetz Anbotoren ordezkaritza edo deitu 946 232 523 telefonora.

EGURALDIAREN IRAGARPENA



ESKELAK JARTZEKO: Tel.: 94.681.65.58
edo anboto@anboto.org

BANAKAKOAK
Paperean edo webgunean: 75
Anboto txartelarekin: 65

Paperean eta webgunean: 115
Anboto txartelarekin: 105

BIKOITZA
Paperean edo webgunean: 110
Anboto txartelarekin: 100

Paperean + webgunean: 150
Anboto txartelarekin: 130



DIBAKOOPERATIBA

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92



Betikoak flexografía

BULEGORAKO ZIGILUAK FOTOLITOAK

946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA



INMOBILIARIAK



F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ERAIKUNTZA BERRIA

IURRETA 3 logela. Garajea eta trastelekua. **282.000 €**-tik aurrera.

AZOKA BERRI 3 logelako etxebizitzak. Garajea eta trastelekuarekin. **387.000 €**-tik aurrera.

ARANDONOTORRE Duplexa. Atikoa. 3 logela eta 2 komun. Terrazak. Garajea eta trastelekua. **C.E.E=B.**

AUKERA

San Fausto-Nafarroa: Lehenengo solairua. 2 logela, komun eta sukalde-egongela. Terraza. **C.E.E=G 155.000 €**

Zeharmendieta: 2 logela, komuna, sukalde-egongela. **C:E:E=E 103.000 €**

ETXEBIZITZAK SALGAI

Ramon Rubiales: 70 m2. Erdi berria. Terraza. Garajea eta trastelekua. **C.E.E=B 265.000 €**

San Fausto: 63 m2. 3 logela, komuna eta sukaldea. **C.E.E=E 149.000 €**

Muntsaratz: Baserria. 670 m2. Familiabakarrekua. 500 m2-ko lursailarekin. **C.E.E=F 525.000 €**

Askatasun Etorbidea: 105 m2. Erdialdean. 3 logela eta 2 komun. Berriztatua. Despentsa-trastelekua. **C.E.E=E 267.000 €**

Durango: Erdi-banatua. 340 m2. 6 logela eta 4 komun. Txokoa. 3 kotxerentzako garajea. **C.E.E=E 637.000 €**

Kirikiño: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. BERRIA. Jantzia. **C.E:E=G 180.000 €**

Artekalea: 94 m2. 5 logela, komuna eta egongela. Trastelekua. **C.E.E=F 195.000 €.**

J.M.Altuna: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. garajea aukeran. **C.E.E=E 318.000 € .**

San Inazio: 3 logela, 2 komun eta eskegitokia. 2 terraza. Eguzkitsua. Garajea. Piztina. **C.E.E=E 265.000 €.**

Baserria, Zornotza: Berriztatua. 436 m2. 3 solairu. 4 logela eta 2 komun. Terrazak. Ganbara. Txokoa beheko suarekin. 4 hektareako lursaila. **470.000 €.** **C.E.E=F**

Izurtza: Baserria. BERRIZTATZEKO: Lursailarekin. **C.E.E=G 198.000 €.**

Abadiño: Gaztelua. Salgai 866 m2-ko lursail laua. **35.000 €.**

LOKALAK SALGAI

Komentukalea: 100 m2-ko lokala. Egokitua. **160.000 €**

Durango: 100 m2-ko lokala alde zaharrean. Egokituta. Taberna. **125.000 €.**

Durango: Bulegoa. Erdialdean. Lehenengo solairua. **650 €.**

Iurreta: Bixente Kapamaga. 117 m2-ko lokala. **75.000 €**

Astepe: 40 m2-ko lokala. Egokituta. **70.000 €.**

Maspe: 150 m2-ko lokala. **112.000 €.**

Askatasun Etorbidea. 60 m2-ko lokala. Egokituta. Kearentzako irteera. **125.000 € .**

Alluitz: 70 m2-ko lokala. Egokituta.



Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ETXEBIZITZAK SALGAI DURANGO

Goienkalea: Apartamentua. 60 m2. Berriztatzeko. **125.000 €**

Barrenkalea: Logela bakarreko apartamentua. Sukaldea, egongela logela eta komuna. Trastelekua.

Tabira: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 3 balkoi. Argitsua.

Barrenkalea: Logela. sukaldea eta komuna. Trastelekua.

ATXONDO

Atxondo: 3 logela, sukaldea, egongela ederra eta komuna. 2 balkoi. Igogailua. Gasa.

Atxondo: 3 logela, komuna, komun txikia, despentsa, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Ganbara.

LURSAILAK SALGAI

Iurreta: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

Abadiño: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatzeko. Lursailarekin. Ganbara.

Berriz: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

Markina: Iturreta auzoan. Baserria salgai. Teilatua konponduta. 12.000 m2-ko lur sailarekin.

Mañaria: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

BULEGOAK ALOKAIRUAN ABADINO

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

DURANGO

Ermodo kalean. 100 m2. 2 bulego alokairuan. Garajearekin.

LOKALAK ALOKAIRUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

Matiena: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

Elorrio: 600 m2-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulegoa. Jantzia. Lanerako prest.

LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI IURRETA

Arriandi industrigunean. 111 m2. Bulegoa eta komuna.

Berriz: Eitua industrialdea. 180 m2-ko pabilioia. Bulegoa, komuna eta aldagela. Errepide ondoan. Leku onean kokatua.



Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



C.E.E: F. 179.000 €

DURANGO Askatasun Etorbidea: 63 m2. Egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna duxarekin. Berrikuntzak behar ditu. Lehioak oraintsu aldatuta. Berantolaketa bat egiteko aukera. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du (iparraldea) Pisu altua eta argitsua. Zonalde lasaia. Zonalde berdeak. ITE-a pasatua.



C.E.E: F. 155.000 €

DURANGO San Fausto: 53 m2 (2.017. urtean berriztatua) Egongela-sukaldea, 2 logela eta komuna duxarekin. Ezin hobea. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendealde) Pisu altua eta argitsua. Zonalde lasaia. Zonalde berdeak. ITE-a pasatutakoa.



C.E.E: E. 129.000 €

IURRETA Bixente Kapanaga: 81 m2. Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du.(ipar, hego-ekialdea) Etxebizitza altua eta argitsua. Leku onean kokatua. Jantzita.



C.E.E: BIDEAN. 290.000 €

DURANGO Muruetatorre: 95 m2. Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Egoera onean baina berrikuntza batzuk behar ditu. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialdea) Leku onean kokatua. Zonalde berdez eta zerbitzugunez inguratuta. Garajea eta trastelekua ondoan.



C.E.E:E. 190.000 €

BERRIZ (OKANGO AUZOA) Familia bikoa. (eskuin alde, erdia) 180 m2. (beheko solairua, lehen solairua eta ataripea) + 25 m2-ko lorategiarekin. Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, komuna, bainugela eta 40 m2-ko espazio diafanua. Egitura osoa egoera onean dago. Bizitzen sartzeko moduan. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-mendealde / hego-mendealde) Berriz eta Zaldibar artean kokatua. Garaje itxia aukeran.



Barrenkalea, 15 behea • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

BERRIAK ABADINO

Olalde kalea: 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **274.000 €/ E.E.Z=B**

DURANGO

Barrenkalea: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

Frantzisko Ibarra: 4 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta 2 komun. Balkoia. igogailua. **335.000 €/ E.E.Z=E**

Juan Antonio Abasolo: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Konpontzeko. **170.000 €/ E.E.Z=F**

Juan de Olazaran: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

ABADINO

Dendarikoa: Zaharberritzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **215.000 € .**

Eskolako: Duplexa. 3 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. **325.000 € / E.E.Z=G**

Txanporta plaza: Eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **253.000 € / E.E.Z=Bidean**

ATXONDO

Artekalea, 13: Konpontzeko baserria lursailarekin. **300.000 €.**

BERRIZ

Murgoitio auzoa: Berreraikitzeo baserria lurzoruagaz. **LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €**

Eitua: Berreraikitzeo baserria lursailarekin. **350.000 €**

GARA

Momoitio auzoa: Etxebizitza eraikitzeo lursailak. Aukera ezberdinak.

IURRETA

Bixente Kapanaga: Zaharberritzeko etxebizitza. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **LEHEN 95.000 € ORAIN 80.000 € / E.E.Z=F**

IZURITZA

Elizalde auzoa: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **LEHEN 570.000 € ORAIN 530.000 € / E.E.Z=E**

GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO

DURANGON SALGAI

Alluitz: Garaje itxia. **24.000 €.**

Kurutziaga: garajea. **18.000 €.**

Kurutziaga: Garaje itxia. **28.000 €.**

Madalenoste: Garaje itxia eta trastelekua. **42.000 €.**

DURANGON ALOKAGAI

Muruetatorre: Garajea. **75 € / hilean.**

Alluitz: Garaje itxia. **75 € / hilean.**

Beste aukera batzuk bulegoan galdetu.

LOKALAK ETA PABILIOIAK SALGAI/ALOKATZEKO DURANGON SALGAI

Aliendalde auzunea: 250 m2-ko pabilioia. **1500 € /hilean.**



LAU-HORTZA

MARKEL ONAINDIA

Telebistari harrika egiteko gogoa

Bala bat bihotzean, ume palestinar bat taupada barik agertzen den bakoitzean.

Fosforo zuria begietan, misil bat sabelean, Gazako jendea gosearen ilaretan akatzen ikus-tean. Deshumanizazioa bonba atomikoaren pare barreiatzen ari da, eta kanal guztietan mezu kontundente bera transmititzen dute, urrutitik agindutako drone bizkor batek ekarria: ez da posible beste mundu bat.

Gerra pornografikoa denon etxeetara sartu da. Kriminal ezagunak protagonista dira pantailan eta, bai, pelikula hau ikusia daukagu, amamak esaten zuen lez.

‘Liluraren kontra’ saiakera premonitorioan, Martin Arbeok dio gerra erregimenaren tes-tuinguruan pesimismoaren lilurari aurre egitea dagokiola mundua ezkerretik eraldatu nahi duenari, hau da, nolabait esperantzari eutsi behar zaiola. Eta, hain zuzen, esango nuke gerraren liderrek horixe bera ere lapurtu nahi digutela, deses-perantzara kondenatuta bizi gaitezen. Egunotan zaila da berba baikorrik idaztea; era berean, benetan gaitza da ideiak ondo artikulatzea, arrazoimenak lekua galdu duenean. Barrenetik, telebistari harrika egiteko gogoa baino ez.

Komunitatean bilatu beharko dugu elkar zaintzeko eta mun-duan gauzak hobetzeko espe-rantza.

AKUILUA

"Kontzertua aitzakia polita da batu eta ospatzeko"

JON ZABALA JAPONIARA BIDAIA EGINGO DU KUADRILLAN

Tokion daudela, Fermin Muguruzaren kontzertua ikusiko du zornotzar kuadrilla batek; 40 urteko ospakizunaren harira, hamabost eguneko bidaia prestatu dute Japoniara



Zabalaren kuadrilla Muguruzaren Anoetako kontzertuan.

Aritz Maldonado ZORNOTZA

Adinarekin eta errutinarekin, adiskideekin batzea gero eta zailagoa da. Hala ere, 40. urte-muga berezia izan da Zornotza-ko zazpi lagunentzat, bidaia berezia egitea erabaki dute eta. Han daudela, Fermin Muguruzaren kontzertua ikusteko baliatuko dute bidaia. Jon Zabalak ANBOToren galderei erantzun die.

Nolatan Japoniara?

40 urteko ospakizunaren harira, kuadrillako hainbat lagun dirua gordetzen egon dira bidaia bat egiteko. Hasiera batean, Boise-ko Jaialdira joatea zen asmoa,

Estatu Batuetara. Iazko Zornotzako jaietan elkartu ginenean, esan nien euskal herritarrek izanda, euskal jai batera joatea baino, hobe izango zela beste norabait joatea, eta Japoniara joatea proposatu nuen. Gustatu zitzairen, eta hurrengo egunean hegaldia hartu genuen. Kasualitatez, handik gutxira Fermin Muguruzak bira iragarri zuen; gu uztailaren 20an iritsiko gara hara, eta kontzertua 23an izango da. Otsailean, irteteagaz batera erosi genituen sarrerak. Tokion eta Fuji Rock jaialdian joko du, eta gu Tokiokora joan-go gara.



Jon Zabala.

Ikusi duzue Muguruzaren beste kontzerturik?

Bai! Ni Bilboko Miribillakoan egon nintzen, Anoetakoan egon naiz oraintsu, eta Tokion ere ikusiko dut. Lagun taldeko beste bi edo hiru ere oso zaleak gara, bai bakarkako ibilbidearenak baita Kortatu eta Negu Gorriakena ere, eta gure lagun taldeko

**"KOLABORATZAILE
ANDANA EZ DA
EGONGO, BAINA
KONTZERTU BEREZIA
IZANGO DA, ZIUR"**

batek horien azken kontzertua ikusi zuen 2001ean, Donostiako belodromoan; sarrera erakutsi zigun aurrekoan.

Zer espero duzue?

Ferminek hainbat bider jo du han, batez ere, bakarkako ibilbidean, eta baditu bere zaleak han. Zer espero dugun? Japoniar piloa egotea, eta euskaldunen bat ere bai, han bizi dena edo oportetan doana. Hangoek beste pasio bat dute, eta sutsua izango dela uste dut; are gehiago, aretoan dela kontuan hartuta. Japoniatik espero dudana espero dut kontzertutik ere. Ziur zer kontatua izango dugula! Ondo egongo litzateke eurekin (Fermin eta musikariek) elkartzea ere! Anoetako eta Miribillako kolaboratzaile andana ez da egongo beharbada, baina kontzertu berezia izango da, ziur. **Gero eta gehiago ikusten dira horrelako bidaiak?**

Gu ez gara lehenak. 40 urte badira zer bizitza batean, eta gainera, hasiera batean, momentu ona da, gaztea zara, dirua duzu... Hamabost eguneko bidaia prestatu dugu guk: lehenengo hiru-lau egunak Tokion bertan egingo ditugu. Handik Fujira goaz, Kyotora gero, eta Japoniako Alpeetara, Osakara eta buelta; Japonia erdialdean ibiliko gara.

40 urteko krisialdiarekin lotuta dago edo edozein momentu da ona horrelakoak egiteko?

Ez dakit pasatu dugun, pasatzen ari garen edo pasatuko dugun. Aitzakia bat da. Azkenean, nagusitzen goazen heinean, kuadrillak banatu egiten dira. Trapagan, Alacanten, Morgan, Zornotzan, eta Durangon bizi gara; banatzen joan gara, eta ez gara lar egoten; beraz, aitzakia polita izango da elkartzeko.

UDAKO
ARGAZKI
LEHIAKETA

DURANGALDEKO
ARGAZKIRIK ONENA
DURANGALDETIK
KANPOKO
ARGAZKIRIK ONENA

LASTER
INFORMAZIO
GEHIAKO

ANTOLATZAILEA
anboto

Zabala Jon eta Laguntzaileak

BIDALI ZURE
ARGAZKIA
608 655 041
ZENBAKIRA EDO
WEBGUTIERA

Maribel Gonzalez de Audicana